

# ttipi ttapa


2003ko urtarrilaren 9a • XXIII. urtea



## Amaiurko aterpea errromesei zabalik

03

Urdazubi eta Baztango Xantio Bideko elkarteak Amaiurko aterpea moldatu eta errromesendako ireki du. Baionatik heldu den bidea berreskuratzea dute helburu.



## Aimar Olaizola lau terdian txapeldun

25

Aimar Olaizola goizuetarrak 22-13 irabazi zion Abel Barriola leitzarrari lau terdiko txapelketaren finalean. Aimarrek jokaturako berderatzi partidak irabazi ditu.



## 04 Leitzako Landa zentrua: Zerbitzu ugari teilape berean



**Bidali  
ttipi-ttapa**  
herritik kanpo bizi diren  
lagun edo familiakoei

 **(+34) 948 631188**

## ORDOKI ALTZARIAK


ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



Jubosa Triunfo  
txokoko besaulkia  
ateratzen ahal  
den besoarekin



ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26  
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

## DATUAK...

- Urdazubi eta Baztango Xantio Bideko Lagunen elkarteak Amaiurko Ostatuko teilatupean egin den Errromesen aterpea ireki zuen abenduaren 21ean.
- Juan Mari Aleman elkarteko kidea da eta Amaiurko alkate berria. Bere ondoan, Joxe Mari Iriarte kargoduna ageri da, aterpea moldatzen hainbat lan muxutruk egin duena.
- Garai batean Orreagakoak hainako garrantzia omen zuen Urdazubi eta Baztandik pasatzen zen Santio Bideak.



Juan Mari ALEMAN *Xantio Bideko elkarteko kidea*

JOSUNE ITURZAETA

ELKARRIZKETA  
ELKARRIZKETA

## «Baionatik heldu den Santiago Bidea berreskuratzea da gure helburua»

Aitor AROTZENA

**Noiz eta nola hasi ziren Amaiurko aterpearen lanak?**

2002ko ekainean hasi ziren. Etxea Baztango Ballearena denez, udalak adjudikatu zituen lanak Harri-Lan, S.L. eraikuntza enpresari. Lanak 60.000 euro inguru gosta dira eta Baztango Udalak Leader Planetik 36.060 euroko dirulaguntza hartu du. Gainerakoa udalak ordaindu du.

**Zein ezaugarri ditu aterpeak?**

Aterpe honek 207 metro koadro ditu. Momentuz, hogeihantze izanen ditu, 100 metro koadroko areto batean. Baita egongela eta komunak ere, 3 komun-ontzi, 4 dutxa-plater eta konketa edo lababorekin. Arropa hedatzeko galeri ere bada. Herriko andere bat arduratuko da erromesen bat badelarik, aterpea edeki eta hango zerbitzuak eskaintzera, hiru euroren truke. Andere honen kontu izanen dira aterpeko garbitasunak.

**Etorkizunera begira, bertze asmo aunitz badituzue Xantio Bideko Lagunen Elkartean?**

Elkartearen asmoa, Baionatik heldu den Santiago Bidea berreskuratzea

**«Elkartearen asmo sendoa da Belateko Monastegia berreskuratzea, garai batean inguruko indartsuenetakoa izan baitzen»**

da, oro har. Beraz, bidea txukundu eta galdua den lekuetan berreskuratu egin nahi da, erromesek pausaleku bat izan dezaten, han hemenka aterpeak idekitzeaz gain. Baionatik atera eta Ustaritzen izanen da lehendabiziko aterpea. Gero, Urdazubiko Salvatore monastegiko klastroan bertze aterpe bat egiteko asmoa dugu. Amaiuren orain ideki dena, Lekarozen bada Gazteen Aterpea (Nafarroako Gobernuarena) eta, azkenik, Belate aintzin edo Belate pasa eta, Berroetan edo Lantzen egin nahi dugu hondar aterpea. Horrela, azken etapa Berroeta edo Lantzetik Arrera izanen da. Arren, Bidearen adar hau Orreagatik heldu denarekin elkartuko da. Azken asmoa, fuertena, Belateko Monastegia berreskuratzea da, garai batean inguruko indartsuenetakoa baitzen. XIV, XV

eta XVI. mendeetan, erromesak Orreagatik haina edo gehiago ibiltzen ziren Urdazubi eta Baztandik.

**Zenbat lagun biltzen zarete elkartean?**

Urdazubi eta Baztango Xantio Bideko Lagunen Elkartean 50 lagun inguru gaude, eta pixkanaka-pixkanaka, gauzak lortzen ari gara. Laguntza handia ematen digu Cederna Garalureko Izaskun Abrilek eta nola ez, Baztango Udalak Amaiurko aterperako bere aportazioarekin. Amaiur eta Arizkunen, herritarrek auzolanen konpondu dituzte Pilar-eko ermita eta San Migeleko ermita. Lan izugarriak egin dituzte, batez ere Amaiurko baselizan. Biak Santiago Bide ertzean daude.

**Elkartean parte hartu nahi duenak, zer egiten ahal du?**

Nahi duen edozeini elkarte honetan parte hartzeko animatu nahi diogu, bazkide eginez. Bilerak egiten ditugu tarteka, ikusteko nola bideratu asmo guztiak, zer pausu eman... parte hartu nahi duenak elkarteko idazkariari, Luis Mari Ruizeri deitzen ahal dio, 948 580274 telefonora.



Landa zentruko aurrealdea. Atarian, bideoak alokatzeko kutxazaina.

ARGAZKIAK: EDURNE ZUBIETA

LANDA ZENTRUA LEITZAN

# Zerbitzu ezberdinen eskaintza zabala teilatu beraren azpian

**Joan berri zaigun urteko irailean ireki zen Leitzako Landa industrialdean dagoen Landa zentrua. Teilatu beraren azpian, taberna-jatetxea, ostatua, bitxi eta arropadenda, joku-aretoa, supermerkatua, bideoak alokatzeko kutxazaina, Pagozelai-Goizabal enpresako bulegoak eta Sagastibeltza arkitektuaren bulegoa biltzen ditu eraikuntza honek. Inguru honetan horrenbeste zerbitzu batera eskaintzen duen lehen zentroa da.**


**Aitor AROTZENA**

Ez da errexa inguru honetan eraikuntza berean hainbeste zerbitzu eskaintzen dituen leku bat topatzea. Leitzako Landa industrialdean egindako zentruan, aukera ezberdinak topatuko ditu bisitariak: atarian, bideoak alokatzeko kutxazaina eta behin atetik sartuta, jatetxea, Pagozelai-Goizabal eraikuntza enpresako bulegoak, arropa, pitxiak eta oparitarako gauzak saltzen dituen denda, joku-aretoa eta supermerkatua, harategi eta arraindegiarekin hornitua. Pagozelaik egin zuen zentrua eta bertan langile zen Rosa Goikoetxeak jatetxea eta hostalaren ardura hartzea pentsatu zuen. Beretzako erronka izan zen: «Inguru honetan esperientzia berria da. Hasieran ez nuen ideia hori. Eraikuntza enpresak egin zuen eta ailegatu zen

momentu bat esan genuena, "zer egingo dugu orain?" ez baita errexa horrelako toki bat saltzea. Orduan apostu pertsonala egin nuen, "neronek ireki behar dut eta denborarekin ikusiko dut zer gertatuko den". Arazo handiak izan ditut hasieran, suerte txarra, baina orain dena konpondu da, gustora eta lasaiago sentitzen naiz eta orain aurrera!».

Baina ez da Rosa apostu egin duen bakarra. Juani Goikoetxeak Landa tabernan egiten zuen lana eta orain Kapritxo izeneko arropa, pitxi eta oparidenda ireki du. «Kasualitatez hasi nintzen lanean, anaiak lokal tiki bat zuela esan eta beti gustatu zait denda bat izatea... Tabernaz pixko bat aspertua nintzen eta aldatzeko. Oparitako gauzak, pitxiak, arropadenda... gehien bat gazte jendeari begira sal-

## Rosa GOIKOETXEA *Pagozelai enpresakoa*



### “Herriari mugimendua eta bizia emateko asmoarekin sortu zen Landa Zentrua”

**Noiz sortu zen honelako ideia?**  
Duela hiru urte, gutxi gora

behera. Eraikuntzara dedikatzen gara eta lur-eremua udaletxeari erosi zitzaion eta

tzen dut. Joan den urteko ekainaren 18an ireki nuen, beraz, hasiera-hasieran. Orduan, bulegoa besterik ez zegoen. Geroztik, supermerkatua ireki da eta jende gehiago datorrela nabari da». Harritzekoa bada ere, egunez lan egitea izan da Juanirentzat gogorrena: «Tabernan gaeuz ohituta nongoen eta orain goizez aritzea gogorra egin zait, aldaketa handia da. Nik mugimendu handia behar dut. Halere, gero eta jende gehiago hurbiltzen da eta gustora nago».

Jexux Zabaletak ere erronka berriari ekin dio Landan. Lehen herrigunean janaridenda txiki bat zuen eta orain supermerkatua ireki du Landan, harategi eta arraindegiarekin. «Denda txiki gelditua zitzaidan aspalditik eta aurrera egiteko beharra somatu nuen» dio Zabaletak. Lehengo bezeroez gain, berriak ere baditu, Ezkurra edo Eratsundik datozenak ere. Aukera zabala eta prezio onean eskaini arren, jendeak Urbil edo Maxi-Eroski bezalako zentru handietarako joera duela uste du: «Hori Eguberrietan nabaritu da. Etxeetan kontsumo askoz handiagoa izan arren, guk ez dugu asko nabaritu. Askotan prezio hobeak guk izanagatik, jendeak ohitura horiek hartzen ditu, baina Europar bezala, hemen ere aldatuko da».

orduan, zer egin behar zen pentsatu genuen. Industrialdea denez, hainbeste pabilioi egin behar zirenez, pixko bat denetik aterako lukeen eraikuntza bat egiteko puntu ona izanen litzatekeela pentsatu genuen. Herriari lanpostuak jarri eta aurrera ateratzeko modu bat bezala ikusi genuen, Leitza geldirik ikusten genuen. Bizia emateko, mugimendu gehiago ematearen ideiarekin sortu zen.

**Nola gogoratu zitzaizuen honelako proiektu bat, inguru honetan nahiko berritzailea dena?**

Landa zentruak denetatik du. Supermerkatu haundi hauek bezalakoa da, Txingudi edo Urbil bezala, baina herri txiki batean dagoenez, ez dugu pentsatu hau, hau eta hau jarri behar da. Guk konzeptua argi genuen, gero lokalak joan dira saltzen eta bakoitzak egoki iruditzen zitzaiona jarri du, negozioa aurrera ateratzeko.

**Jatetxea eta taberna duela hiru hilabete ireki zenituen, baina ostatuarekin arazoak izan dituzu, ez da?**

Taberna eta jatetxea urriari ireki ziren, bai. Orain arte problema genuen lizentziekin ostatu irekitzeko. Orain lizentzia eman digute eta martxan jarri nahi dugu hostala ere. Lehen solairuan, eskailerak igoz, izango da hostala, bi oheko hamabost logelekin: bi handiak bikote oheekin eta hamahiru normalak... Guziek dute terraza, komuna, TB...

Igantzioko Iruglasek egin du dekorazio lana eta oso polita gelditu dela iruditzen zait. Leitza ederki ikusten da terrazatik. Logeletara sartzeko txartela erabiliko da eta gero argi guziak pizteko balio du txartel horrek berak. Erosoa da, horrela ez baita inor behar gaeuz giltzak emateko... Txartela hartu eta kitto! Jendea lasaia ibiltzen da horrela eta gu ere bai.

## LANDA JATETXE-TABERNA

Rosa Goikoetxea da landa zentruko jatetxe, taberna eta ostatuaren arduraduna. Jatetxea eta taberna urriaren 11n ireki ziren. Rosaren ustez, «sukalde handia eta sukaldaritza ona eskaini behar da, hainbeste jendearentzat ematen hasten zarenean».

Hiru hilabete beteko ditu zabaldu zenetik, baina dagoeneko aldaketa batzuk egin behar izan ditu: «Sukaldariak ere aldatu behar izan ditugu jatetxean, ez zen nire gustora ateratzen janaria. Herriko ohituretara moldatzea nahiago dut, klasikoagoa baina hura ongi egin... Orain hori eskaintzen dugu eta jendea ere gehiago etortzen hasi da, gustorago nago. Leizatetik eta inguruko herrietatik ere etortzen da jendea. On-do doa».

Leitzan, Basakabiren ondotik, jangela handiena eskaintzen duen jatetxea da Landa: «Banketeak emateko 120 lagunekin ongi ibiltzen gara. Tokia eginez gero gehiago ere sartzan dira, baina lasai emateko hori da kopurua. Baina normalean mahaiak jarriak dau den bezala, 84 lagun sartzan dira» aipatu digu Rosa Goikoetxeak. Astegunez 8 eurotan izaten dute menua eta



**Astegunetako banaketa normalarekin 84 lagun sartzan dira Landako jangelan, banketetan 120 inguru.**

asteburuetan 18 eurotan. «Astegunetan industrialdeko langileak, herriko jendea eta kanpotarren bat edo beste etortzen da, denetatik pixka bat, baina gehiena herrikoa».

Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Frankeo Itundua: 34/79  
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com  
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidente:** Pello Apeztekoa.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irgoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.  
**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak...  
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirieta Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Fernando etxerat orain!

21 eguberri Fernando Arburua gabe. Nola diren gauzak, 1996az geroztik etxean behar zuen, eta ez guk hala diogulakotz, baizik legeak hala erraten duelakotz. Baina nork erran zuen legeak eta justizia gauza bera direla?

22 urte, horiek izanen dira heldu den ilbeltzaren 28an beteko dituenak, kartzelan egindako urteak. 49 bereak, berak dituenak, pentsa 27 urterekin atxilotu eta geroztik preso. Oroitzen zarete zuetako bakoitzak zer egin duzuen urte guzti hauetan?

1.200 kilometro. Horiek dira Zugarramurdi eta Cadizen artean dauden kilometroak, Fernandoren etxearen eta Fernando preso dagoen kartzelaren artekoa, Puerto I. Hain zuzen Fernandoren haurride, jendaki eta lagunak astero-astero egin behar izaten duten bidaia. Lehendabizik joan, 40 minutuko bisita egin, eta ondotik bueltatzeko.

90 metro koadratu gure etxeak. 3x2 metro, edo 6 metro koadratu Fernandoren zeldak. Zeldak horretan egun osoa ematen du, patioko 2 orduak ez bertze. Pentsa, gure etxe komuneko neurrian 22 urtez.

22 urtetan nola joaten den denbora, eta jendeak: Fernandoren ama, bere bi arreba, anai bat; eta egundaino beren hileta elizkizunetara joateko aukerarik gabe, nahiz eta legeak horretarako eskubidea eman.

Eta zu oroitzen zara Fernandori buruz? Gu bai. Animatzen zara guz-

tiok elkarlanean Fernando etxerat ekartzera?

Presoak etxerat, Fernando gure artera!

**NORA SALBOTX**  
**Fernando etxerat herri ekimena.**

### Agur eta ohore, Juanitori eta Kattineri

Juanito il da, bena ez da hilik. Bizirik dirau gure baitan, eta irauen du, betiko. Maitatu ditugunak, ez baitirade sekulanik galduak, bizi dire gurekilan, gure bihotzaren erdian.

Osaba Juanito, aite, aitetxi, aitabitxi, haur gineleik, egun hedoitsu batian, Biarritzeko farorat eraman gintuzun, eta handik gure itsasoa, artean garbia, perspektiba diferent batek behatzeko parada paregabea eman zineraitan. Bertze egun batean, Biarritzeko aquariumaren bisitazterat gan ginen elgarrekin, eta hantxen uretako bizilagunek hurbiletik ikusteko plazer hunkigarria sentitu ginuen.

Eguberriren *nous chantions le chant de Noël Petit Papa Noël quand tu reviendras du ciel, à la Messe de la Réveillon, Réveillez-vous choeurs endormies*, Angeluko Nid-Basqueko elizako koru ttipian, zure esku xuxen eta irmearen zuzendaritzapean, eta denak alegera, kontent eta zorionekoak ginen, zuri eskerrak.

Juanito Eraso, Alkate Jauna: *tu trajiste a nuestro pueblo los gigantes y los kilikis, aquellos kilikis que tantas emociones, risas y llantos, provocaban a la chiquillería ávida de diversión. Moña-moña, pirata mala pata... Comparasa de gigantes y cabezu-*

*dos. Algarada infantil y juvenil al son de txistus, gaitas, tamboriles y atabales. Más alegrías para un pueblo en este valle de lágrimas, a te clamamus, Juanito gratias.*

Izeba Kattin, ama, amatxi, amabitxie, ene lehen frantses erakasle, zuk eta Juanitok aunitz eman diozue gure herriari eta gure lurrari, eskuzabalki eta xarmanki, zuen musikarekin eta zuen maitasunarekin, eta zordun gira zuekin.

Egun zuen ezkontzaren urteurrena da, orai dela 59 urte espostu zineten, Alduiden. Eta hainbertze maite zaituztegun baztandarrok eta nafarrok zuek biek merezi duzuen Agur eta Ohorea egin beharra datzuegu, orai eta keben. Izan ere, zuek ere nafarrak baitzarete sortzez. Bata, Alduidekoa; bertzea, Aresoarra. Gaur zuen urtemuga da, eta inoiz baino bilduago zarete zuen herriaren aitzinean. Eta guk omenaldi ttipi bat egiten ahal dautzuegu, bi lore eskeiniz, zuen bihotzaren baratzean bart arratsean sortu, hazi, eta

loratu diren bi lore...

Bi lore  
Gorri kolore, herriko lore  
Zuen maitasunaren kolore  
Zuen maitasunaren olore  
Zuen maitasunaren dolore  
Agur eta Ohore!

Esker mila hainitz  
Eta aunitz urtez

Ezkontzen bazirade errotazaiarekin hartu beharko dituzu zorro makilakin.

Itsasoa laino dago Baionako barraraino Nik zu zaitut maiteago txoriak beren umiak baino.

Maitua nun zira zik ez zütüt ikusten ez berririk jakiten Nurrat galdü zira.

Agur, gure txori kantari Agur, gure txori errari.

**KANTATZEN DUTEN HERRIEK BIZI DIRE**

Horra, Horra,  
Gure Olentzero

Baita Erregeak ere heldu dira urrundik izar berri eder batek bidea erakutsirik.

**Elizondo, 2002ko lotzilaren 23a**



### Juanito ERASO OLAETXEA

*Larrosak dira gorriak edo bestela txuriak hagitz ederragoak dira neskatiaren irriak. Eder basoan haritza aranaldean garitza fruitu antzera ontzen da hemen gizasemeen bizitza.*

**Elizondon, 2002ko abenduaren 23an AHAIDE eta ADIXKIDEAK.**

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



ARDATZA 2002-12-13

«Legeak bete behar dira, baina moldatu behar dira tokien arabera; mendialdea eta Erribera ez dira berdinak. Gobernuak ongaria ustategietan gordetzeko ezarri nahi zuen 6 hilabeteko epea ezinezkoa da hemen. Ez diogu epeari eta putzuari begiratzen, eguraldiari begiratzen diogu. Mendi aldean zortzi egunez eguraldi ederra baduzu bederatzigarrenean hasi behar duzu ongaria ateratzen, zeren gero, eguraldi euritsua badago, hemen dugun belardi aldapatsuetan ezin baituzu zuk nahi duzun bezala ibili, arriskutsua

delako. Berdin dio epea. Bederen, Gobernuak ezarritako epea murriztea lortu du EHNEk eta hasieran ongaria 6 hilabetez gorde behar bagenuen, orain 4 hilabetez izanen da».

Javier ITURRALDE  
Zozaiako abeltzaina  
ARDATZA 2002-12-13

«Loteria jendearen bizi kalitatean nabaritu da. Etxe asko moldatu eta berriak egin dira. Gaur egun ez dago lurrik saltzeko eta hori arazo handia da».

Jesus Mari BULDAIN  
Leitzako inbobiariakoa  
D. Noticias 2002-12-20

• 11 GALDERA LABUR •



**Jon IRAZOKI** Doneztebeko musika eskolako zuzendaria

**Doneztebeko musika eskolako eta abesbatzako zuzendaria. Agintzea gustatzen zaizu edo?**  
Ez, batere.

**Aukeran, zuk bertzeak zuzendu edo bertzeak zu zuzentzea nahiago?**  
Bietatik pixkot, bakoitza bere denboran.

**Musika erakustea edo ikastea da zailagoa?**  
Erakustea.

**Zer duzu gustokoen, pianoa, txistua edo adarra jotzea?**  
Hauek ere bakoitza bere garaian.

**Kantatu edo dantzatu?**  
Kantatu, dantzatzen hagitz txarra naiz. Beno, kantatzen ere...

**Malerekako edo Bortziritako jende-**

**ak du musikarako afizio gehiago?**  
Berdintsua, berdintsua...

**Eta hobeki nor moldatzen da?**  
Berdintsu errango dut, badaezpada, bertzela denak haserretuko zaizkit!

**Bisbal, Chenoa edo Doneztebeko abesbatza?**  
Doneztebeko abesbatza, dudik gabe!

**Operacion Triunfo-ra aurkezteko moduko norbait ezagutu duzu hemen?**  
Bai, telebistan agertzen diren horiek baino hobek gainera.

**Ligatzeko estrategia ona da neskei goxogoxo belarrira abestea?**  
Uff, nere kasuan ez!

**Urte zaharrean kantatu, dantzatu eta...**  
Ahal dena egin, ez?

**I G U T N T E**  
**ICHE**  
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA  
ZERBITZUAK  
DONEZTEBE BEILATOKIA**

Bortziriak eta Malerrek  
24 orduko zerbitzua beilatokian  
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404  
☎ 900 704704

Ortziraletan, 10etan  
Mus Txapelketak

**ERREKALDE  
ostatua**

Tfnoa: 948630259 - BERA

**BEINTZAko  
OSTATUA**

☎ 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN

**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA

## NEKAZARITZA

# Ez da aldaketa handiegirik izanen Nafarroako Nekazarien Ganbaran

UAGNk hameka ordezkari izanen ditu eta EHNEk sei, lehen bezala

## tipi-ttapa

Nafarroako Nekazarien Ganbara hautatzeko abenduaren 18an egindako hauteskundeetan, nekazarien sindikatuetako 17 ordezkari aukeratu ziren. Sektoraren ordezkariak sindikalak neurtzeko baliagarria izateaz gain, Nekazarien Ganbararen osaketak berebiziko garrantzia du gero Espainia eta Europako Instituzioetan nekazaritza buruz hartuko diren erabakietan eragiteko. Denera 8.120 laborari eta abeltzainek zuten egun horretan Nafarroan botoa emateko eskubidea eta 5.518 hurbildu ziren hautesmahaietara. Beraz, %67,96ko parte-hartzea izan zen Nafarroa osoan. UAGNk 3.230 botu jaso zituen, %58,72a eta hameka ordezkari izanen ditu,

lehen bezalaxe. EHNEk 1.787 boza jaso zituen, %32,49 eta lehen bezala sei ordezkari izanen ditu. UPAk, azkenik, 459 botu jaso ditu eta ehuneko 8,34a bertzerik jaso ez duenez, ez du ordezkari izanen. Beraz, orokorrean, aldaketa handiegirik ez da izan duela lau urteko hauteskundeekin konparatuz. Dena den, erraten ahal da gure eskualdean UAGNk botu batzuk irabazi dituela, EHNEren kalterako. Baztanen, erraterako, duela lau urte 103 botu eskuratu zituen UAGNk eta abenduaren 18ko bozetan 170. EHNEk, 264 zituen aitzineko hauteskundetan eta 217 azken hauetan. EHNEk aldiz, erdialdean eta Erriberan duela lau urte baino botu gehiago eskuratu ditu.



ARGAZKIA: AITOR

Emakume bat Nekazarien Ganbarako ordezkariak aukeratzeko botua eman, Berako hautesmahaietan.

HERRIA	ZENTSOA	BOTUAK	XURIAK	B.GAB.	EHNE	UPA	UAGN
ARANTZA	34	32	0	0	31	1	0
BAZTAN	482	393	0	2	217	4	170
BERA	57	32	1	0	25	0	6
DONEZTEBE	133	67	0	1	50	0	16
ETXALAR	53	38	0	0	32	2	4
GOIZUETA	18	14	0	0	14	0	0
LABAIEN	95	53	0	0	42	0	11
LEITZA	58	48	0	0	34	1	13
LESAKA	54	24	0	1	19	1	3
SUNBILLA	27	16	0	0	11	0	5
URDAZUBI	40	32	0	1	17	0	14
ZUGARRAM.	27	19	0	0	5	4	10
GUZIRA	1.078	768	1	5	497	13	252
PORTZENTAIKAK		%71,24			%64,71	%1,7	%32,81

## Eskualdean EHNE nagusi

Eskualdean 1.078 lagunek zuten botua emateko eskubidea eta 768k eman zuten (%71,24), beraz Nafarroako banazbertzearen gain-

etik joan ziren nekazariak botua ematera. EHNEk 497 botu jaso zituen (botuen %64,71) eta UAGNk 252 (%32,81). UPA ez zen %2ra ere ailegatu.

Gisa honetara, es-

kualdeko hiru ordezkari izanen dira Nafarroako Nekazari Ganbaran: UAGNko Begoña Sanzberro almandoztarra eta EHNEko Mikel Petrirena sunbildarra eta Zozaiako Jabier Iturralde.

## MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

### ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larru azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

### IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

### GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritria, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

### KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

## PIKABEA

Molinerro drogerian  
galdetu

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio  
arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

Zalain  
jatetxea

☎ Zalain s/n • Tel. 948 63 09 67  
Bera - Nafarroa



**BERA**

## Trakatan trakatan Hiru Errege...

Akautu dira Eguberriak

**Amaia eta Ainhoa**

Eguberriak joan zaizkigu eta ohiturei jarraiki Olentzero etorri da opariz gainezka, glin-glan kantari goxoki eskean ibili dira haurrak, legearekin kunplutuz urte berriaren bezperan Dios Te Salvea kantatu da eta denen gozamerako erregeak ere ikusi ahal izan ditugu. Aurtengoan gainera aparteko ospakizuna egin da errege bezperan, izan ere antzerki taldeak jaiotzaren pasadizoak antzestu baititu eszenatokitza Berako karrikak eta xoko berexiak hartuz. Hala ere aipatze-

koa da egunean bertan lanean aritzeko bolondresak aintzineko urte bezala eskaxak izan direla. Kultur Batzordeak ondorengo urteei begira kontzientiazio deialdia egiten du gainerakoan ohitura hau galtzeko arriskua nabaria baita.

**Ziklo-kros Txapelketa berriz ere Beran**

Gure Txokoa Elkar-teak eta Berako Udalak antolatuta, igandean Euskal Herriko Ziklo Kros txapelketa egin zen. Munduko Txapelketa eta Espainiako Txa-



ARGAZKIA: GOIKOK UTZIA

Martin Goikoetxea argazkilaria beratarra Paris-Dakar lasterketaren hiru lehendabiziko etapak segitzen izan da Tunisian. Toyota Spirit Dakar 2003 izeneko aukeraketan estatu osoko jendeak parte hartu du. Ehun lagun hautatu zituzten kultura orokorreko frogak gainditzeko. Hortik 32 finalista gelditu ziren Toledoko Segovillan froga gogor batzuk gainditzeko. Sei irabazle-ek lortu dute Paris-Dakar Toyotarekin ikusteko txartela. Urtarrilaren 4an abiatu zen Bartzelonatik Tunisiara eta urtarrilaren 9an itzuliko da. Argazkian, Alvaro de Marichalar eta bertze partehartzaile batekin ageri da Martin.

pelketa jokatu izan ziren aspaldiko urtetan eta aurten berriz ere erabaki zuten ziklo-krosa Berarat ekartzea. Gai-

nera, txapelketa honetan bi herritar gazteen partehartzea aipatzekoa da: Patxi Vila eta Juan Carlos Garrorena. Ma-

tzada futbol zelaian ateri eta bertan zuten helmuga. Hurrengo alean, txapelketa honen berri zabala jasoko duzue.

**KIROLA**

### Izar Gorrik irabazi zion Etxera! taldeari areto-futboleko Gabon Kopako finala

Azken urtetan Toki-Ona Kiroldegian "GabonKopa" antolatuta da eta aurten ere ez da txapelketarik faltatu. Areto futbolarekiko afizioa aipatzekoa da, hamar talde aritu baitira ilunabarretan kiroldegian lehian. Giro paregabea egon da partidu guzietan batez ere abenduaren 30an jokaturako finalean. Lesakako Etxera! Taldea Berako Izargorriren kontra aritu zen eta azkene-

an beratarrek 4-3 irabazi zuten. Ematuzplay izan zen hirugarren eta Attonkaxkuk laugarren, hemen ere 4-3ko emaitzarekin. Izar Gorriko Etxebe izan zen gol guttien jaso zuen atezaina, Baietzeko Aritz Perez golegilerik onena, Guarraná talde kirolzaleena eta los Caños-ek sartu zuen golik onena. Finaleko jokalaririk onena Angel Pombar izendatu zuten.



**ANSONEA** jatetxea  
Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia  
Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

**OKANE**  
**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

**GOYA**  
JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK  
Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

## LESACA

## «Ilargiaren ortzadarra» ikuskizun ederra eskaini zuten herriko taldeek

Jende aunitz bildu zen Zambran antzeztutako ipuina ikustera

Aitor AROTZENA

Herriko artistek eskainitako ikuskizunekin akautu zen 2002. urtea. Abenduaren 22an «Krabelinak uharteetan» antzezlan eskaini zuten Mairu antzerki taldekoek Kattu eta Atxaspi ostatuetan.

Abenduaren 29an, berriz, «Ilargiaren ortzadarra» ikuskizuna eskaini zuten herriko hainbat taldek Zambran, Arrano elkarteak antolatuta. Gaizka Sarasolak idatzitako ipuinean oinarrituz, bideo proiektzioak eta herriko hainbat talderen lanak taula gainean ikusteko eta aditzeko modua izan

zen: bertso eskola, musika banda, Tantirumairu euskal folklore taldea, akordeolariak, trikitalariak, abesbatza, perkusioa, Mairu antzerki taldea... guziek lagundu zioten Nabar protagonistari txuri-beltzeko mundutik koloreen bila egin zuen ibilbidean. Azken finean, horixe baitzen mezua: ilargiaren zuria osatzeko kolore guziak beharrezkoak diren bezala, munduan kultura eta hizkuntza guziak ere beharrezkoak dira. Herrian bizi diren etorkinekin egindako azken bideo-klipean ederki laburbildu zen ideia hori.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Eguberrietako ospakizunak gibelean utzi ditugu. Loteriak 5. sariaren zati bat ekarri zuen ikastolara (hilaren 7tik aitzin kobratzen ahal da Nafarroako Aurrezki Kutxako bulegoetan). Jaiotza eta Olentzero lehiaketetan neska-mutiko aunitzek hartu zuten parte. Urtezahar gauetan «Diostesalbe» kantatuz ataratu zen abesbatza eta Errege bezperan kabalgata egin zen.

## KIROLA

## Xabier Zozaia Munduko pala txapeldunari bi omenaldi egin dizkiote herriko pilotazaleek

Xabier Zozaiak ez du aisa ahanztiko 2002. urteko azken asteburua, herritarren bi omenaldi jaso baitzuten. Abenduaren 27an, Basurde elkarteko pilotazaleek eta palista ohiek berea eskaini zioten eta Zozaia ere pala motzean aritzeko aukera eman zioten, Del Rio, Arriola, Bittiri, Gaztelu, Oiartzabal, Salvador Ieta Agirretxerekin batera. Gero afora izan zuten. Biharamonean, Ba-

tzokik antolatutako paleta-goma txapelketako finalen egunean, aurrekoa dantzatu zion Peio Etxebestek, palistek arkuia egin zioten eta loreak eskaini zizkioten Zozaia eta bere amari. 2. mailako finalean, Santesteban eta Arburuak 30-18 irabazi zioten Oiartzabal eta Sanjurjori. Maila nagusian, Antxordoki eta Txoperenak 30-19 irabazi zioten Villanueva eta Pernauteri.



**kiskun**  
Ileapaindegia  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behea  
LESACA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESACA

**ANIA**  
Janaridenda  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESACA

**XATURETXEA**  
Zahar  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESACA

**«USOA»**  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 948635214  
ETXALAR

## ETXALAR

# Arrakasta handiz burutu dira Eguberrietako ospakizun guziak

Jende aunitz bildu zen Olentzerorekin, Ela-Elan eta errege eguneko txokolatadan

### Joseba eta Nerea

Urte berria hasi dugu eta era berean eguberrietako ospakizun gehienak ere akabatu dira. Abenduaren 23an, iluntzeko mezaren ondotik, Olentzero etorri zitzaigun herrira eta jende andana hurbildu zen elizatarira, ongiatorri beroa egitera. Aurten gainera bi Olentzero ikusi genituen. Bertzetik, erran behar da ez zuela aurtengoan joan den urteko hotz ikaragarriarik egin eta horrek jende aunitz animatu zuela. Baserritar arropa soinean jauntzi eta urteroko herri-buelta egin zuten bildutako haur eta gurasoek, herriko trikitilari eta txistularien laguntzaz. Ondotik, luntxa izan zuten denek Elutsa ostatuan.

### Errege eguneko txokolatada

Astelehen honetan, errege eguna, urtero bezala Larraburua jubilatutik elkartean herriko haurrentzat txokolatada eman zen. Arratsaldeko bortzetan bildu ziren haur guziak berentzeko asmoz, eta txokolatea hartu ondotik sari bartzuen zozketa egin zen.

### Santa Luzia: Jostunen eguna

Edozein aitzaki aski baita afaria egiteko, abenduaren 13a, Santa Luzia, jostunen santua ospatzeko Bortziritako hainbat jostun bildu ziren Herriko Ostata afaltzera. Badira urte batzuk elkarrekin biltzen direla eta lehengo urtean Berako Zalain jantzetan bazkaria egin



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

### 101 kiloko basurdea

Irailaren lehenbizian hasi zen basurde-sasoia eta herriko ehizturiek dagoneko basurde bat baino gehiago hartu dute. Argazkian ikusten dituzuenak abenduaren 21ean ehizatu zituzten. Eta erdikoa ez da nolana hikoia, 101 kiloko pisua baitu. Usoa ehizturi elkarteko kideak kontent ageri ziren, ez baita egunero horrelakorik ehizatzen. Eta oraindik, otsailaren 28a bitarte, seguru gehiago ere hartuko dituztela.

bazuten ere, aurten nahiago izan dute afari baten inguruan ospatu beren zaindariaren eguna. Kontatu digutenez giro bikainean pasatu zuten gaua eta hurrengo urtean errepikatzenko asmoarekin agertu dira.

### Euskal presoan aldeko bilkura

Data berexi hauetan, arrazoi desberdinetatik, gurekin egoterik ez dutenak oroituz, kontzentrazio ixila egin zen abenduaren 31n "Euskal Presoak Euskal Herri" lemapean.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

### Etxez etxe eskean

Etxalarren urte zaharra agurtu eta berria hasteko modu berexia dugu. Abenduaren 31n herriko haur guziak talde ttikitant biltzen dira etxez etxe eskean ibiltzeko. "Ela-ela, nor da, nor da..." koplak ezaunak, gure herrian behintzat, kantatzen dituzte, etxeoandre eta nagusiek ematen dizkieten urtaren truke.

**KOXKILA OSTATUA**  
 Berriro mus Koxkilan!  
 Astero opari ederrekin

Zarandia, 4 - LESAKA

**Ioredenda**

Albistur, 39-K  
 627542  
 LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

**LEGARRA**

<u>Prentsa</u>	<u>Fax publikoa</u>
<u>Liburuak</u>	<u>Plastifikazioa</u>
<u>Tabakoa</u>	<u>Enkuademazi</u>
<u>Opariak</u>	o
<u>Kukuxumusu</u>	<u>lanak</u>
<u>kamisetak</u>	<u>Inprenta</u>
	<u>lanak</u>

**Egunero biekia**

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9

**HERRIKO**  
 OSTATU - JANTZIA

Albistur, 39-K • 627542  
 Etxeak - LESAKA

## IGANTZI

# Zenbait bide moldatzeko dirulaguntza agindu dute Iruñetik

Lesakako pala txapelketan bi bikote garaileak igantziarrak izan dira

## Oskar TXOPERENA

Hirurteko Plangintzan onartu ez ziren bideen moldaketei baiezkua eman die orain Nafarroako Gobernuak. Oraingoan bertze bide batetik joan omen da lan hauen dirulaguntzen onarpena, nekazarien esplotazioetara joateko bideak moldatzeko azken orduko deiladia aterata baitzen aitzin horretan. Moldatu beharreko bideak Hirurteko Plangintzan aurkeztutakoak berak dira: Mugako Errekatik Mendibil eta Mendibil Ttikirakoa, Simonbaitara doaien bidea, Antsoneko bordarakoa eta Meakandigainetik Goietxebordarainokoa. Aurrekontua 251.000 eurokoa (42 milioi pezeta) da eta Nafarroako Gobernuak %60-a ordainduko omen du.

Bertzalde, azkeneko bilkuran herriko garbiketen lana Corpus Txoperenari ematea erabaki zuen Udalbatzak. Berea izan zen eskaintza bakarra eta 10.175 eu-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Eguraldi ederrarekin eta ohiko moduan joan zaizkigu azken Eguberriak ere. Ohiko moduan diogu urteroko ekitaldiak bete egin direlako: Eguberri bezpera goizeko haurren eskia, egun bereko arratsaldean olentzeroek herrian barna egiten duten itzulia, urte zahar ilunabarreko Biltoki Ttikikoan santaketa itzulia, eta, berriak idazterakoan oraindik egiteko baldin bazegoen ere, pentsatzekoa da Errege egun bezperako kabalgata ere. Olentzeroa da, ordea, ekitaldi nagusia. Dozena erdi bat edo baziren aurten, baina agian, dena erran behar bada, bat edo bertze kenduta, ez dute lehengo urtetako mailarik erakutsi. Aurten berrikuntza Olentzero batek erabilitako garraioa izan da: argazkian ageri den asto polit hori.**

rotan garbituko du eskola, mediku kontsulta, Herriko etxea eta karrikak.

## Igantziako palistak bikain

Arrakasta ederrak lortu dituzte azken as-

teotan igantziako palistek. Neska gazteen mailan, Irungo Ramuntxo Trinketea ordezkatzuz Euskadiko Txapelketa irabazi zuen Agesteneko Lourdes Larzabalek. Aspalditik ari da astero-astero Irunera entrenatzen zera joaten eta orain ari zaio ailegatzen lan horren ordaina.

Bertzalde, Lesakan jokatu berri pala txapelketako bi mailetakoko bikote garaileak igantziarrak izan dira: Bigarren mailan Asier Santesteban eta Mikel Arburuak irabazi zuten, eta maila nagusian Guillermo Antxordoki eta Xebe Txoperenak garrantzi handiko garaipena lortu zuten, txapelketan jokatu duten pilotarien zerrenda ikusita batez ere. Palaz ederki jokatzen ari den pilotari gazte taldea bada Igantzin, eta agian ez litzateke ergelkeria izanen bertze modalitate handiago batzutan saiakera ttiki bat egitea, pala motzean errate baterako.

## Herria ezagutzuz



## Ataka ttiki

Garai batean, horretaz ez dago dudarik, aunitzez gehiago erabiltzen zen eskola ingurutik Errota edo San Juan Xar aldera doaien bidea, herritik artoa jotzera edo Arantza aldera joaten zirenak bertatik ibiltzen baitziren. Lehenago galtzadaz ongi hornitutako bidea izaten zen eta errotaren subasta egitarekoan hartzen zuenari galtzada zati handiak moldatzeko baldintza paratzen zitzaion: «*devera el arrendador del molino ejecutar varias calzadas (...) desde la ataca de la puerta de Choperena asta la otra llamada de Ygalar, de ancho tres pies*».

Ikusten denez, bi ataka nagusi zituzten Landabizkarreko lur alorrek: Txopenekoa eta Igalarkoa. Azken honek izen ezberdina izan ditu: Zaharrena, Puerta de Ygalar (1691), gero Ataca de Ygalargaña (1767), eta azkenik Atacachiqui (1821). 1955ean bidea desgertaraztea erabaki zuen Udalbatzak, («*declarar extinguida la servidumbre de paso*»), baina auzotarren kexuei esker bidaxkak bere horretan segitzen du, («*que subsista la senda de Ataca-chiqui*»).

## ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziako Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313



## SAROBÉ

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

## ARANTZA

# lazko horma eta hotzik gabe, haizegoarekin joan dira Eguberriak

Andoni Mitxelena, Joseba Madariaga eta Borja Iturria sarituak Beran

### Nerea ALTZURI

Pasatu dire eguberri ukituko asteak. Norberak bere modura iragan ditu egunok: bakoitzak bere zentzua hartzen dio egun seinalatu hauei. Orohar ordea, Olentzerotik hasi eta errege egunarte, oporretan egon dira herriko ttikienak eta zenbait kasutan, hain haurrak ez direnak ere. Zoritxarrez, arrazoi batengatik edo bertzearengatik gure artean egon ez direnak ere izan dira. Familian, lagunartean pasatzen dira data hauek herrian.

Zazpi olentzero, giro beroa eta kantari kuadrila ederrarekin, gabon eguneko arratsaldea eta eguberri eguneko goiza joan ziren.

Eguberriari ongietorria egin, su artifizial eta guzi gainera Gaisenberro baserri gainakaldekik botatuak eta gu lekuko izan ginen. Meltxor, Gaxpar eta Baltaxarren bisitarekin akautu da aste honetan eguberrien denboraldia.



Joseba Madariaga, Borja Iturria eta Andoni Mitxelena, sari banaketan.

ARGAZKIA: GREGORIO MITXELENA

Orain herria eta herritarrrak betiko lanetara bueltatu dire. Urteberria joan dena bezain ona edo hobea izan dadila! Urteberrian irakurle!!

### Gure Txokoako ipuin lehiaketa

Berriz ere herriko gaztetoak zoriondu beharrean gaude. Oporrak hartu aintzinetik, abenduaren 20ean sariak ja-

so zituzten herriko hiru gaztetzok. Berako Gure Txoko Elkarte Kultura sailak urte sailatik hunat egiten duen Ipuin lehiaketa bortzerrietako haur eta gaztetzoei zuzendua izaten da. Lau maila izan dira aurten, adinari so eginez "Basoak eta basoko biztanleak" gaia izanik, eta DBH 1 eta DBH 2. Mailako gaztetoetan, An-

doni Mitxelenak lehenengo saria; Joseba Madariagak bigarrena eta Borja Iturriak hirugarrena eraman dituzte. Andonik, "A ze paria karakola ta baria" ipuina; "Azeria denen inbidia" izeneko istorioa Josebak; eta Borjaren ipuinaren izenburua, "Non bizi naiz?". Zorionak zuei eta parte hartzaile guzietan ere!!

## FLASH

### Herriko eraikinen garbiketa

Urtero-urtero herriko zenbait bulegoen garbiketa lanak egiteko prest daudenen artean lehiaketa egiten du udalak. Joan den abenduaren 9a hondar eguna izanik proposamenak aurkezteko, bertze urte batez, Rosarito Ajesta Larretxea Arru-nakobordakoak egiten ditu eskola, mediku kontsulta eta Herriko Etxea garbitzeko lanak.

### «Dena» izeneko denda berria zabalik

A Mano kateko denda ireki du Arantzan Jabier Etxeberriak. "Dena" izeneko dendaren inaugurazio ekitaldia abenduaren 15ean egin zen, igandearekin. Nafarroako Gobernuordez-kariak eta herritarrak izan ziren bertan. Jabierrek denda berriari buruzko azalpenak eman zituen Burlada jatetxean, eskainiko dituen zerbitzuen berri emanez. Izan ere, ohiko janaridendek eskaintzen dituztenekin batera, bertzelakoak ere topatzen ahal dira Denan. Handik, herriko txistulari gaztetoen laguntzaz, dendara joan ziren. Hameketakoa ere izan zuten bertara hurbildutakoek.

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

TEL K  
K MISET K  
ISE  
K MISKEI X  
N HI UZUNK U U, NEU I ET (ISENU) ERIN  
Ezt r z h T l- F x 3 15 21

**ERROTAZAR**  
**Harategia**  
Eztegara 3  
Tfnoa: 948 630 198  
BERA

**LESKA**

## ITUREN

Eguberriak  
argazkitan

**Bide Ertzean taldearen kontzertua** Ibintza Kultur Taldeak antolatuta, joan den abenduaren 29an kontzertua antolatu zuen Herriko Etxeko ganbaran. Areto honetan jende ugari bildu zen kontzertua aditzera.



**Herriko Ostata ireki da** Abenduaren 23an ireki zituen atea berriro ere Herriko Ostata. 7 hilabete inguru bere atea itxiak eduki ditu moldatze lanak egin behar zizutela eta zenbait enkante ere izan dira. Hauetako batean hartu du 10 urtetarako Bittorek. Sukaldean eta barran Justi Ostolaza ere egonen da, lehenengo Txoko ostatuko sukaldaria zena.



ARGAZKIAK: IBAN ISASI

Joan den abenduaren 21ean, larunbata, Oronoz-Mugairiko pilotalekuan Baztango XXI. Pilota Txapelketaren finalak jokatu ziren. Finalera ailegatu zirenen artean 6 iturendar zeuden. Hauekin batera Saldias eta Doneztebeko bi mutiko ere baziren. Goiti hasita eta ezker-eskuin: Aritz Juanenea (Saldias) eta Oier Bereau (Ituren), lehenengoak gelditu ziren Haurrak "A" mailan, Gaizka Bendoiro eta Unai Madariagaren aurkako partidari; Jokin Almandoz (Ituren) eta Gorka Fagoaga (Latsaga-Ituren) irabazle suertatu ziren Ibai Igara-bide eta Asier Jaunsararen aurkako Haurrak "B" mailan; Ugaitz Elizalde (Ituren) eta Arkaitz Untxalo (Ituren) bigarren izan ziren Oinatz Jaunsas eta Dario Trantxeren aurkako jokoa Txikian mailan eta azkenik, Daniel Gartzia (Doneztebe) eta Julen Altxu (Ituren) bigarren suertatu ziren Mikel Azpiroz eta Josu Apezetxearen kontrako partidari Umeak "B" mailan.

**Inuxentadak Aurtitzen**

Abenduaren 28an Inuxente Egunean argazkian ageri den Aurtitz sarrerako kartela, eta sarrera nagusiko bertze bietan Aurtitz Zubietako auzoa bihurtua zela ikus ahal izan zen, eta argazkirik ez badugu ere, oraintxe bertan itxita dagoen Aurtizko Ostatuaren atean, "800 eurotan salgai" iragarkia jarri zuten. Bat baino gehiago harritua gelditu zen hauek ikusterakoan.

# ARTEKARI

## TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA


**LESAKA:**

• Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

**BURLATA:**

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328 • 133346. Faxe: 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Terraza eta  
plater konbinatuak

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

**EKAITZA**

Hostala • Kafetegia  
Gelak TB eta bainuarekin

**ZUBIONDO JATETXEA**

Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
saqardoteqia jatetxea saqardoteqia

## ZUGARRAMURDI



ARTXIBOKOA

San Estebanak ospatu dituzte aurten ere Alkerdi auzoan.



Hiru haur jaio dira aurten Zugarramurdirin. Argazkian, Juanamari eta Dominik bere neskarekin ageri dira. Hiru heriotz ere izan dira herrian eta ezkontza bakarra.

# Igande goizeko meza berreskuratu da apez berriarekin

Gabon gauerdiko meza ere eman zen bortz urteren ondotik

### Margari eta Koro

Abenduaren lehene-tik hunat berriz ere igandeko meza nagusia ematen da herrian. Duela urte batzuk Urdazubiko Don Justino hil zenetik apez berak eman behar izan ditu mezak bi herrietan eta geroztik igandetako meza gal-

dua zen. Orain berriz, Pedro apeza gazte berrri hunekin berreskuratu da 11:30etako Meza Nagusia. Horrekin batera, duela bortz urtez geroztik egiten ez zen Gaboneko gauerdiko meza ere («Misa del Gallo» delakoa) aurten eman izan da.

### San Estebanak Alkerdin

San Estebanak ospatzeko aurten ere Alkerdi auzoko bestak antolatu dira. San Esteban abenduaren 26an da eta egun horretan meza egin zen auzoko kaperan, baina besta la-

runbatera pasatu zen. Aunitz urtez ospatu gabe egon ziren besta hauek eta gan den urtean gazte talde batek berriz ere antolatu zituen arrakasta pullita lortuz. Aurtengo egitaraua hauxe izan da: «Burkaitzean» bazkaria; ondotik jokoak egin ziren;

eta finitzeko Joxe Angelek alaitutako dantzaldia izan zen.

### Urteko balantzea

2002. urteko balantzea ez da txarra izan: 3 heriotza, 3 jaiotza eta ezkontza bat. Hor-hor mantentzen ari gara.

**Haritza belardenda**  
Mediku naturista kontsulta  
Masajista  
Legia I, behea BERA  
© 948 630652

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

616 513 497

**Pititi ESKABAZIOAK**  
C/Antonia  
31700 DONEZTEBE (NAFARRA)

## GOIZUETA

# Iñoteei buruzko erakusketa egiteko materiala bilduko da herrian

Omenalda eskaini zitzaion Aimar Olaizolari Urtezahar egunean

## Esteban AROTZENA

Hurrengo martxoko 2, 3, 4 eta 8an ospatuko dira aurtengo iñoteak, eta ordurako, gai honi buruzko erakusketa

interesgarria prestatu nahi du herriko kultur taldeak.

Balizko erakusketa honen ardatza gure karnabalak izanen dira. Be-

raz, festa honekin loturaren bat eduki dezaken materiala (argazkiak, burrunziak, mozorroak...) udaletxera eramateko deialdia luzatu

diete antolatzaileei herritarrei. Ez da esan harririk, noski, erakusketak bukatu bezain lasto, dena bueltatuko da.



ARGAZKIAK: ESTEBAN

Inoiz ez bezala ospatu da herrian Olentzeroaren etorrera. Abenduaren 20an Mari Domingi (argazkian) etorri zen eskolara kartak jasotzera, eta 24ean sekulako ongietorria egin zitzaion olentzeroari eta bere neska-lagunari.



Kepa Pikabearen margoen erakusketak helburu guztiak bete ditu. Herritar asko igaro da Ganbaratik, eta gainera, laupabost kuadro saldu dira.



Zapela lortu eta handik 48 ordu baino lehen jasozuen Aimarrek herritarren agur beroa. Ehundaka lagun bildu ziren pilotaplazan Urtezahar egunean

## ARESO

# Olentzerok bisita egin digu, musika eta kantuen laguntzarekin

## Juana Mari SAIZAR

Neguko garai honetan, eguraldiak ez digu elurrik ekarri aurtengon, haizegoa ibili baita bazterrak nahasten. Baina garai honetako hainbat ekitaldi errepikatu dira. Eskolan, hiruhilabeteari bukaera emanez, antzerkiak, kantak eta olentzeroren bisita izan zuten. Nahiz eta ofizialki abenduaren

24an etorri, Olentzero zerbait aurreratu zen, umetxoek kantaz eta trikitiaz alaituta. Ohiko elizkizunak eta gaixoei bisita egin ziren Jesus umetxoarekin, herriko gazte eta haurrek kantatzen zutelarik.

## Egunpasa Bilboko haur parkean

Bilboko PIN edo Egu-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Herriko umeez, trikitilariak eta panderojoleak lagun zituztela, herriko itzulia egin zuten, Jesus haurtxoarekin batera.

berrietako Haur Parke-  
ra egunpasa egin zuten  
abenduaren 27an, Gu-

raso Elkarteak antolatu-  
tuta. Eguberrietako ai-  
sialdi egunak (jokoak,

eskulanak, tailerrak...) izan dira Euskara Zerb-  
bitzuak antolatuta.



## LEITZA

# Artistak, herriak, mitoak... eta besteak

Urte bukaerako errebasoa argazkitan

Mikel ILLARREGI

Zaila bezain arriskugarria gerta daiteke titulu honen pean izen batzuk aipatzea eta beste batzuk ez. Halere, azaltzen direnak merezi dutelakoan arriskatuko gara, ...eta besteak barkatu.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Orentzaroa. Aurten ere orentzaroa, Euskal Herriko beste tokietara bezala agertu zen. Hala ere, modu ezberdinetan agertu zen;

7.1. Umeek opariak jasotzeko prest eta horretarako denek eskeintzen dute bizkarra.

7.2. Urtero aldarrikapen beretsu izan den Orentzaroa ere izan da eskatzen zuena alegia. Lehen presentziak gain, kontzentratu nifetazioa eta afaria ere antolatzen, berauen etxetatik urrundu den presoak hurbil egon daitezke.


7.3. Udalak ere izan zuen bereziki eta dudarik gabe handiena. Udalak palditik udaletxeko ganbaran aldatu donaturik zegoena, eraberritu eta kaleratu zuten. Honen begiraketa, aurtengo azken udal-barrutira ospatu zuten eta hurrengo urteari begira jarri ziren baina, zerekin daitekeen edo gertatuko den garbi jakin gabe.

Hainbeste argazki artean gogoratu gabe ezin utzi, Mendibil menditaldeak antolatutako argazki lehiaketa. Epea, ilbeltzaren 15ean.

**KAPRITXO**  
Arropa eta opari denda  
© 649 450249 • LEITZA



1. Karmele Lizarraga. Urtebete Guatemalan: «Herri honek sufritzen duen pobrezia handiena eskubide falta da». Handik etorri eta berehala Saharara joan zen hiruzpalau eguneko: «Izarren azpian abandonaturik dagoen herri borrokalaria».



2. Itziar Fagoaga. Lekeition ospatzen den «Euskal Zine eta bideko bilera»rako antolatutako lehiaketan «Ondarea» bideo lanarekin, Amateurren Argumendotzako 1. saria irabazi du. Gaia: Bakardadea.



3. Migeltxo Saralegi. Santomasetan, Donostian, 225 kiloko errektangularra minutu batean 5 jasoaldi egiteko asmoa, baina Gipuzkoako minutuak motxagoak omen eta 4,5 aldiz jaso, beste erdia falta. Edota denbora falta?



4. Inaxio Perurena. Esku bakarrez 205eko zilindroa burrasaten abentura 22an eta 260 metroko koadroa ETB-Sorginen Laratza berezian dira marberriak, 18 urteko horien eskutik.



5. Abel Barriola. Lau eta erdiko txapelketan kamixeta gorria Gasteizen utzi behar izan zuen. Herrira bueltan, bertara lagun zituen askorekin afaria bapobapo. Txuriz jantzita gainera, aspaldian bezala... Orri hontatik ere, zorionak Aimar eta jarraitzaile guztiei.



6. J.A. Olaetxea. Abelen botileroak eta lagunak, leitzarguztiok bezala pena hartu zuten baina txapelketako bigarren izatea guxtiesterik ez dagoenez, gustora ospatu zuten, «zapore» berdina ez izan arren.

**LEITZA**  
ANOLKULARITZA  
Uharteko Gotzaia 6, 2.Ezk. LEITZA (Nafarroa)  
TI. 948 203730 - 639 869312  
LAN ARRISKUEN PRESENTZIA,  
KONTABILITATEA  
FISKALITATEA  
IVA, IRPF  
AUTONOMOAK  
NOMINAK, KONTRATUAK  
Orain Leitzan

**FISIOETXEA**  
Ane Egizabal Llata  
FISIOTERAPEUTA  
✓ ERREHABILITAZIOA  
✓ OSTEOPATIA  
✓ Kirol eta Zirkulazio MASAJA  
✓ ERDITZE AURREKO/ONDORENGO TRATAMENDUA  
✓ ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA  
✓ MUTUAK  
✓ ASEGURUAK  
✓ PARTIKULARRAK  
Huarte Gotzaia 8, 3.C - LEITZA 948 510730

## BAZTAN

# Juanito Eraso maisuari azken agurra eman zaio

Abenduaren 21ean hil zen hirurogei urtez Elizondoko abesbatzako zuzendari izandakoa

## ttipi-ttapa

Elizondoko abesbatza zuzentzen 60 urte bete zituen urtean hil zen Juanito Eraso Olaetxea maisua, joan den urteko abenduaren 21ean. 1914ko otsailaren 21ean sortu zen Areson, baina tiki-ttikitatik Elizondon bizitu zen. 1942an hasi zen abesbatza zuzentzen eta hainbat sari irabazi zituen taldearekin. «*Belarri txarreko jende aunitz izan dut baina oso burugogorra naizenez ia gehienei erakutsi diet abesten. Genio txarrekoa naizela diote baina era berean pazientzia haundia daukat*» adierazi zion TTIPI-TTAPARI, 2001eko maiatzean eskainitako elkarrizketan. Pazientzia horren ondorioz, hainbat eta hainbat kantarik ikasi dute berekin. Elizondoko alkate eta Junta Generaleko bokala ere izan zen Juanito Eraso 1940. hamarkadan.



ARTXIBOKOA

Juanito Erasok hirurogei urte eman ditu Elizondoko abesbatza zuzentzen.

Hileta elizkizunak Elizondoko Santiago parrokian egin ziren abenduaren 23an. Kultura eta politika munduko hainbat ordezkari hurbildu ziren, elizondar aunitzekin batera. Elizan, abesbatzak azken agu-

rra eskaini zion maisuari, «Requiem»a kantatuz. Josune Makibar sopranoak Cassiniren «Ave Maria» abestu zuen, Erasoren borondatea betez. Amadeo Arretxea dantzariak «Aureskua» eskaini zion.



Europako diru laguntzakin, Injuve-k Turismo Intercultural izeneko programa bat antolatzen du. Bertan Espainiar estatuko komunitateko gazteek parte hartzen dute, kultura ezberdinak ezagutu ditzaten. Aurtengo azkeneko txandan, Elizondoko Lanbide Eskolako ikasleei egokitu zaie, 20 laguneko talde bat hain zuzen. Hortarako, Malagako Mollina herrian dagon CEULAJ izeneko zentrura joan ziren. Han Melilla eta Granadako ikasleekin elkartu ziren eta 6 egunez, azaroaren 26tik abenduaren 2ra, hainbat ekitaldi eta bisitetan parte hartu zuten. Esperientzia polita izan zen, eta ikasle guztiak pozik itzuli ziren, aunitzek pena eta guzi izan zuten handik alde egitean, lagun berriak egin bai zituzten giro politean.



Abenduaren 20an Olentzero Ttikirekin Elizondoko karririk alaitzen aritu ziren Baztan Ikastolak, beraiek egindako eskulanak banatuz. Benito Menni zahar etxera bisita egin zuten 5. eta 6. mailakoek eta Xorroxin Irratian ere izan ziren.

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**

abokatua  
Aseguru orokorrak

© 948581468 • 948580433  
Frantziarako etorb. 12 •  
Ameztialde 3B • ELBETE



© 948 631 462  
Aitzate 1 • BERA

**MENDIALDE  
Jatetxea**

AMAIUR • © 948453060



**JATETXEA**  
© 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**MENDI  
OSTATUA**  
Santiago 25 - © 948 580313  
ELIZONDO



**ANTXITONEA  
Trinketea**

Jatetxea - Ostatua  
Hotela - Trinketea

**Menu Bereziak**

Braulio Iriarte  
ELIZONDO  
© 948 581807 • 948 581853

**BAZTAN**

## Herrietako alkateak aukeratzeko hauteskondeek arrakasta guti

Lehenbiziko bozetan zazpi alkate bakarrik hautatu ziren

**ttipi-ttapa**

Abenduaren 22an egin ziren Baztango herrietako alkateak hautatzeko bozketak. Espero bezala, hauteskondeek ez zuten ikusmin berezirik piztu eta hamabortz herrietatik zortzitan ez zen hurrengo bi urteetako alkatezarako hautagairik azaldu. Hiru herritan orain arteko alkateek segituko dute, Anizen Marcelino Rementegik, Iruiritan Maribel San Josek eta Zigan Francisco Etxenik. Amaiurren bazuten hautagairik; lehendik zortzi urtez kargodun izandako Mendialdeko Juan Mari Aleman izanen da alkate hurrengo bi urtetan, lau legealdi bete dituen Beñardo Amianoren orde. Azpilketan, Etxarteneako Ramon Urrutia izanen da alkate Juan Jose Irungaraiaren orde. Berroetan, Kortazarreko Rafael Arretxea aukeratu zuten Lorenzo Maritorenaren orde eta



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

**Autonomia gehiago eskatu zuten herrietako alkateek Junta Generalean.**

Almandozen Luis Rolandan, hiru legealdi bete dituen Severino Landaren orde. Arizkun, Arraioz, Elbete, Elizondo, Erratzu, Gartzain, Lekaroz eta Oronozen alkaterik gabe gelditu ziren lehenbiziko hauteskondeen ondotik.

Dena den, Urteberri egunean bertze lau herritan alkateak aukeratu zituzten. Arizkunen Martin Elizalde aukera-

tu zuten alkate izateko, Elbeten Joaquin Urreaga eta Lekarozen Fernando Astiz. Erratzun ez zuten batzarrerik egin, Santiago Ibargairai gaur egungo alkateak bi urtez segitzea erabaki baitzuen.

Arraioz, Elizondo eta Gartzainen Errege egunean biltzekoak ziren berriz ere batzarrean. Oronoz-Mugairin 12an bilduko dira.

**LAU KUARTELETAKO JUNTEROAK**

Abenduaren 26an egindako Junta Generalean, lau kuarteletako junteroak hautatu ziren. Baztangoizakoa Juan Luis Karrikaburu izanen da, Elizondokoa Peio Oskariz, Erbereakoa Peio Berho eta Basaburuakoa Antonio Barreneite. Batzarrean, autonomia gehiago eskatu zuten herrietako alkateek.

**FLASH**

**Oihanberritze lanak**

Alkurruntz eta Orabidea mendietan, Otsondo, Basandegi eta Altzola inguruetan oihanberritze lanak egiteko proiektua onartu du Balleko Udalak. Nafarroako Gobernua sustatu du 89.173,92 euroko aurrekontua duen proiektu hau.

**Iruiritako eskolako sarbidea**

Iruiritako eskolako sarbidea estaltzeko lanak Iruiritako Urballo erakuntza enpresak egingen du, 23.496,30 euroren truke.

**Baztango Mendi-goizaleak**

Urte berriari gogoz ekin diote Baztango Mendi-goizaleek eta lau ateraldian egingen dituzte. 5ean Oronoz-Oronoz ibilaldia egin zuten, 12an Belaunera joanen dira, 19an Beintza-Labaiera eta 26an Mendaurra.

**Iruiritako Gizarte Zentrua**

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza ukatu dio Balleko Udalarari Iruiritako Gizarte Zentrua egiteko. 2003ko dirulaguntza deialdia ateratzen denean berriz eskatuko du Udalak.



**BAZTAN FUNERARIA**

Mateo Lertxundi

**TANATORIO ZERBITZUAK**

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA EHOZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO  
• © 948 580373 • 608 776176



**BAZTAN**

**ALTZARIAK zurgindegia**

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

SENPERE

# Konpostagailu berria banatzen hasi da Bizi Garbia sindikata

## Adin bereko senpertarren biltzar ainitz ospatzen ari da

**Franck DOLOSOR**

Bi milagerran konpostagailua banatu berri du Bizi Garbia Lapurdi hegoaldeko zikinen herrien arteko sindikatak. Duela guti, herrian ospatu zen bilkuran, bertako arduradunek esplikatu zuten Ainhoan banatu zela zikinak bereizi eta berziklatzen dituen tresna. Sindikata hunek 9 herri biltzen ditu eta hauetan 800 konpostagailu banatu nahi ziren hastapenean bainan azkenean uste baino gehiago zabaldu da berziklaketa-idea.

Austriatik datorren

tresna hunekin gure zikinen %25a tikitzen ahal dugu. Sindikatak ldituen 9 herrietan, odarkinak bereizteko 65 toki daude, hauetarik batzuk gure auzotegietan Amotze ala Aintziran bezala. Xehetasun gehiagorentzat: 05 59 51 09 69.

### Autodefentsa ikastaroa

Auto defentsa ikastaroak eskaintzen ditu "Senpere Arts Martiaux" elkarteak. Arte martzialaletaz interesa duen orok zenbaki huntarat deitu behar du:

06 80 02 64 75.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Urte hondar guziz egiten den gisan, 2002a ere klase bazkari ala afari frangorekin bururatu berri zaigu. 45, 55 eta 70 urte bete dutenek Bonnetegia jattetxea hautatu zuten momentu alegere bat lagunen artean pasatzeko.



M.M.

Lur aberatsak errespetatuz Peyrehorade-ko saihets bidea.

**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

**MARTXO BITARTEKO ESKAINTZA**  
Eguzkitik babesteko toldo 1 erosiz gero, %10 merkeago

☎ 948 63 10 03  
Fax: 948 63 10 03  
Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

**PERTSIANAK**  
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK,  
MOSKITERAK eta VENECIANAK

**LA TE LAK**  
© 948631076 • BERA

**HERRIKO ETXEO EDANTEGIA**  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL 0559542519

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.  
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

**BERA DESINFECTIÓES**  
© 948630155  
**BERA**

## SARA



Talde nagusia eta gazteak. Sarako Izarra errugbi taldearen egutegian ageri diren argazkiak.

## Mutilek errugbian eta neskek eskubaloian ere akitu dute urtea

Errugbian hirugarren dira eta neskak ere ongi ari dira



Eskubaloian, neska helduak, 15 urtez azpikoak eta 11 urtez azpikoak ari dira. Emakumeek ere maite dute kirola.

### Xan HARRIAGUE

Sarako jokalariek go-go haundiarekin joan baziren Azkainen kontrako derbira, etxekoek laster erakutsi zuten haien nagusitasuna eta 3 puntuak eskuratu irabaziz 29 eta 6. 2003ko urtea hasi aintzin Saratarrak 3garren ditugu sailka-

penean 22 punturekin, lehena Kanbo delarik 28 punturekin eta Bigarre-na Azkain 24 punturekin. Amou lehen talde Landestarra 4garren du-gu 18 punturekin. Urtar-rilaren 12an Sarako tal-dea, Marsacq-en aritu-ko da, 19an aldiz Saran Amouren kontra eta hi-

labetea finitzeko kanpoan berriz, Menditen. Jakin dezazue taldearen laguntzeko talde nagusiko eta errubi esko-laren egutegiak erosten ahal dituzuela.

### Esku balona

Abenduaren 14ean, helduek irabazi zuten etxean Asperen kontra 21 eta 10, 15 urte azpi-ko taldeak gauza bera egin zuen Hendaiaiko

taldea menperatuz emaitza tinkoa izan ba-zen ere, 16 eta 14. Gaz-tetxoak aldiz galdu zu-ten etxetik kanpo, kan-boren kontra 21 eta 8. 2003ko urteaz hasi ain-tzin helduak, «honneur» delako sailan 5garren dira 6 taldeen artean. 15 urte azpiko gazteak «Promotion» delako sailean 3garren dira 5 taldeen artean eta 11 urte azpiko gazteak «Honneur» delako sai-lan 5 garren dira. Hel-duen matxak arratseko 8etan izaten dira eta Saran arituko dira ur-tarrilaren 11an eta 23an Asoon eta Donibane Lohitzuneren kontra eta Martxoaren 15ean eta 26an Pau Nousty eta Arudyren kontra. 15 ur-te azpiko taldearen ma-txak berriz arratsalde-ko 4ak eta erditan iza-ten dira eta horiek Sa-ran arituko dira urtarri-laren 18an Kanboren kontra, otsailaren lehe-nean Angeluren kontra eta martxoaren lehe-nean eta 22an Irisarri eta Urruñaren kontra. 11 urte azpiko taldea berriz Saran arituko da arratsaldeko 4ak eta er-ditan urtarrilaren 11n eta 25ean Mourenx eta Kanboren kontra, mar-txoaren 15ean Irisarri-ren kontra eta apirila-ren 26ean Lucq de Be-arnen kontra.

# ANZABAL

AGENTZIA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

Santiago 15 - ELIZONDO  
Tfnoa eta Faxa: 948 580804

### Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

### Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

### Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

### Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

### Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Dr. Guy Randé  
Odontologoa

Kontsultak  
Astearte, ortzegun  
eta larunbat  
arratsaldez

LARUN  
HORTZ  
KLINIKA

Tel: 948 631057 • San Esteban 21 • BERA

## AZKAIN

# Urteberria plazan elgarretaratzuz ospatu zuten azkaindarrek

Herriari buruzko liburuaren bigarren edizioea argitara eman da

## Ihintza, Angela eta Eneko

Abendoaren 31an, urte zahar egunaren ospatzeko ekitaldiak izan ziren herriko plazan. Larrun kanta abesbatzak, Fermin eta Xumai bertsolariak eta Kornelioko eskusoinulariek, kantu, bertsu eta musika doinuak eskaini zituzten arratseko 7 etan.

Auzapezak zorionak eskaini zituen herritar guzietan, suzko zezena piztu zuten, eta zintzur bustitzea eskaini zuen Herriko Etxeak.

## Azkaini buruzko liburuaren bigarren edizioea

Azkain Euskal Historia edo «Ascaïn Histoire Basque» liburuaren bigarren edizioea plazaratua izan da berrikitan.

Roland Moreauren obra 1977an ateratu zen lehen aldikotz. Liburuak lau kapitulu nagusi ditu. Lehenak herriaren aurkezpen orokorra eskaintzen du, bigarrene-



ARGAZKIA: ENEKO JORAJURIA

Haurrei herri kirol ezberdinetan trebatzeko modua eskaintzen duen Kulki taldea izan zen Azkainen olentzero egunean.

an, Azkaingo Historia landua da, balizko prehistoriko okupaziotik abiatuz. Hirugarrenak parropia aipatzen

du eta azkenak herriko jende ezagunak aurkezten ditu, Xurio, Pierre Loti eta bertze idazle batzuek artetik.

## Kulkiren herri kirolak

Kulki taldeak 40 bat haur bildu zituen herriko plazan, 3 eta 10 urteko haurrek bi orduko animazioa izan zuten. Ondotik Olentzerorekin ibilaldia egin zuten herriko karriketan, kantu ugari eskainiz.

## Pilota

Josephe Laduche Torneoa egin zen Abendoaren 28an Trinketearen. Patrick Ezkurra eta Thierry Etchetok irabazi zuten Philippe Lafitte eta Jean Claude Dermiten kontra.

Pilota eskolako haurrak aritu ziren lehenik. Ondotik palantxa partida izan zen neska eta mutikoen artean. Karine Higos eta Paxkal Mihura, Marina Ado eta Benoit Garaten kontra.

Bertzalde Marc Berasategik Frantziako binazkako Xapelketan parte hartzen segitzen du, Abendoaren 29ko partida irabazi baitzuen Donibane Garazin.

## FLASH

## Ibiltzaile mendi taldearen ibilaldiak

Ibiltzaile mendi taldeak urtarrilean lau ibilaldi antolatzen ditu. Urtarrilaren 12an, igandearekin, Ainhoa - Arrano Mendi. 14an, asteartekin Lepoz Lepo. 16an, ortzegunarekin Ibardin - Berra. 19an, igandearekin, Bidarra - Iparla.

## Zorionak Ihintzari

Ihintza TTIPI-TTAPAKO berriemaileak haurra izan zuen Abendoaren 27an. Sortu den mutiko koxkorak Ellande izena du. Zorionak Ihintza, Ellande eta Gabi senarrari, urte zaharra bukatu bezain ongi hasi dezatela berria.

## Gorka Taberna herriko errugbi taldera itzuliko

Azkaingo taldea bigarren postua atxikitzeko ariko da lehenaren kontra (Kanbo) Urtarrilaren 12an. Sararen kontra irabazi zuen duela zombait aste eta horri esker hirugarren tokia gibelerrat utzi zuten Azkaindarrek.

Jokolarietan aldaketa bat azpimarratu behar da Gorka Tabernak jakinarazten baitu Hendaiako taldetik itzuliko dela bere herrian ari ziteko berriz.

**Landibar** ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN

300 m<sup>2</sup> perfume markarik ezagunenekin  
Usain-onak, kosmetikoak...  
Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

**MARTIKO**

**DENDA ORDUTEGIA**  
Astelehenerdik Ortzaralera: 8:00-12:30 eta 14:30-17:00  
Abenduko larunbatetan: 9:00-13:00  
Tel: 948 625016 • Fax: 948 625036 • BERA



## EZKONTZAK

**Eñaut Azarete** eta **Karen Harispe**, Senperekoak, irailaren 28an.  
**Sébastien Halzuet** eta **Anne Marie Benac**, Senperekoak, urriaren 12an.  
**Pierre Michel Eyharabide** eta **Christelle Catherine Solange Herbretau**, Senperekoak, azaroaren 9an.  
**François Pierre Luc Ferry** eta **Sandra Tharan**, Azkaingoak, abenduaren 28an.  
**Jose Miguel Iñarrea Mitxelorena** eta **Espe Iguzkiagirre Elzaurdia**, Bera eta Igantzikoa, abenduaren 7an.  
**Xatur Larralde Ibarrola** eta **Maribel Apezetxea Eskudero**, Arantza eta Goizueta-koa Orion, abenduaren 28an.  
**Jose Luis Mendiburu Muxika** eta **Maria Jose Etxenike Etxandi**, Zubieta eta Erratzukoa, abenduaren 7an.

## SORTZEAK

**Mathieu José Soares Lameoras**, Senperekoa, abenduaren 5ean.  
**Elena Santesteban**, Senperekoa, abenduaren 6an.  
**Rémi Bernard Jean Amestoy**, Senperekoa, abenduaren 13an.  
**Unai Artola Alduntzin**, Aresokoa, abenduaren 12an.  
**Aimar Otermin Gurutzarri**, Aresokoa, abenduaren 16an.  
**Patxi Loiarde Petrikorena**, Igantzikoa, azaroaren 27an.  
**Sam Guirriec**, Azkaingoa, abenduaren 20an.  
**Ellande Daguerre**, Azkaingoa, abenduaren 27an.  
**Leire Iribarren Indaburu**, Etxalarkoa, abenduaren 26an.  
**Ane Matxikote Etxeberria**, Berakoa, abenduaren 5ean.  
**Abel Etxeberria Vazquez**, Berakoa, abenduaren 10ean.  
**Ekhi Blanco Perez**, Berakoa, abenduaren 17an.  
**Eneritz Zapiain Abuin**, Berakoa, abenduaren 19an.  
**Ane Telletxea Oartzabal**, Lesakakoa, azaroaren 8an.  
**Olaia Iantzi Etxarte**, Lesakakoa, azaroaren 28an.  
**Aitor Cano Bermejo**, Lesakakoa, azaroaren 30ean.  
**Iratxe Muxika Carrión**, Lesakakoa, abenduaren 5ean.  
**Jaione Goñi Mitxelena**, Lesakakoa, abenduaren 19an.  
**Aintzira Feito Zubiria**, Lesakakoa, abenduaren 26an.  
**Maidier Rekalde Organbide**, Amaiurkoa, abenduaren 9an.

## HERIOTZAK

**Marie Jeanne Mikelajauregi**, Senperekoa, azaroaren 15ean.  
**Augusta Anne Soubrevy**, Senperekoa, azaroaren 26an.  
**Jean Baptiste Ozkoidi**, Senperekoa, abenduaren 3an.  
**Matéo Melgar**, Senperekoa, abenduaren 18an.  
**Severino Lukanbio Maiz**, Arantzakoa, abenduaren 11n, 76 urte.  
**Julian Dagerre Martinez**, Berakoa, abenduaren 12an, 70 urte.  
**Juana Albizu Lopez de Zubiria**, Lesakan, abenduaren 13an, 90 urte.  
**Consuelo Etxeberria Migelena**, Lesakakoa, abenduaren 15ean, 91 urte.  
**Miguel Angel Oskoz Ekioiz**, Arantzakoa, abenduaren 23an, 49 urte.  
**Mercedes Altzuguren Agirre**, Berakoa, abenduaren 24an, 85 urte.  
**Marie Antoniete Larran Bordaberri**, Azkaingoa, abenduaren 22an.  
**Aline Andrée Nenert Ourdas**, Azkaingoa, abenduaren 26an.  
**Juan Larraz Azpiroz**, Leitzakoa, abenduaren 25ean, 89 urte.  
**Margarita Berasain Sestorain**, Leitzakoa, abenduaren 27an, 70 urte.  
**Tomasa Zubiri Etxenike**, Erratzukoa, abenduaren 9an, 64 urte.  
**Maria Otxotorena Borges**, Elizondokoa, abenduaren 13an, 86 urte.  
**Jose Ignacio Oskoz Sarreatea**, Irurita-koa, abenduaren 16an, 78 urte.  
**Maria Visitacion Iturburua Hualde**, Erratzukoa, abenduaren 18an, 89 urte.  
**Petra Gortari Itcea**, Azpilkuetakoa, abenduaren 22an, 80 urte.  
**Benita Alkasena Barrenetxe**, Arizkungoa, abenduaren 30ean, 93 urte.  
**Consolacion Iturbide Elizalde**, Arizkungoa, urtarrilaren 1ean, 48 urte.



**Juanito  
ARBURUA MIHURA**

«Gure oroimenean  
 geldituko da  
 betirako zure ontasuna  
 eta bizi-poza»



**Familiak jendearen hurbiltasuna  
 biziki eskertu nahi du.**



**Mercedes  
ALTZUGUREN AGIRRE**

**2002-XII-24an hil zen Beran,  
 85 urte zituela.**

*Urak dakarrena urak daroa  
 zuk emandakoa  
 gurekin gelditzen da.*

**BERAKO FAMILIA.**



**Miguel Angel  
OSKOZ EKIOIZ**

**2002-XI-24**

*Momentu gogor hauetan  
 gurekin izan zareten guzietan,  
 MILA ESKER familiaren  
 partez.*

**ARANTZAKO FAMILIA  
 2002ko abenduaren 24ean.**

## PILOTA

# Aimar Olaizola goizuetarrak lau terdiko txapela jantzi zuen abenduaren 29an

22-13 irabazi zion Abel Barriola leitzarrari Gasteizko Ogetan jokaturako finalean

**Aitor AROTZENA**


Aimar Olaizola goizuetarra da lau terdiko txapelaren berria, abenduaren 29an jokaturako finalean 22-13 irabazi baitzion Abel Barriola leitzarrari. Olaizola II. arentzat profesionaletan lehen mailan lortu duen lehendabiziko txapel ofiziala da. Kantxa osoan bigarren mailakoa ere irabazi zuen.

Ikusmin handia piztua zuen partida honek. Finalerdiko ligaxkan, partida ederra eskaini zuten finaleko bi protagonistek, baina finala ez zen hain ikusgarria suertatu. Hasieratik aurretik jarri zen goizuetarra (Barriola bi aldiz lau terditik pasatu zela aprobeztatuz) eta pixkanaka abantaila handitzen joan zen. Aimarrek bere ohiko jokua egin zuen, tantuak pazientziaz landuz eta ongi bukatuz eta Abelek normalean baino huts gehiago egin zituen. Gainera, Leitzakoak ez zuen bere gustoko pilotarik aurkitu: «*Edozein pilotarekin oso zaila da Aimarri irabaztea, hauekin ia ezinezkoa. Atzelariok hobe dugu etxean gelditzea. Dena den ez diot meriturik kentzen, bera izan da txapelketako pilotaririk onena eta merezizimendu osoz irabazi du*». Izan ere, behe-behetik hasita, lau terdiko txapelketa honetan jokaturako bederatzi partidak irabazi ditu Olaizolak.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Udako torneotan, sei finaletan sartu eta lau irabazi zituen Aimar Olaizolak. Lau terdiko txapela irabazi ondotik, orain eskuz binakakoan murgilduko da Olaizola gaztea eta gero buruz burukoan. «*manon behetik hasi beharko dut, baina entrenatuz gero, goiti joaten ahal naizela ikusi dut, baina presarik gabe joanen naiz*».



## Aimar OLAIZOLA Goizuetako pilotaria

*“Eskuz banaka ere txapela irabazten ahal dudala erakutsi dut”*

**Txapel honekin, banaka aritzeko ere balio duzula erakutsi duzu?**

Konfidantza handia hartzeko balio du txapel honek. Pilotari guzientzat garrantzitsuena eskuz banakako txapel bat irabaztea da, horrekin amets egiten dugu. Hori falta zitzaidan eta orain lortu dut.

**Piloten inguruan polemika ere sortu da, motel xamarrek ote ziren...**

Espektakulua ikusteko, bote erdiko pilotak hobeak direla iruditzen zait,

partidu hobeak ikusten dira. Azken urteetan bote handiko pilotekin jokatu da eta duela 10-15 urteko partidak pilotatuagoak izaten ziren. Nire pilotak motelak eta mugitzeko zailak ziren eta hori nabaritu da, Barriolak ezin baitzuten mugitu.

**Buruz burukoa irabazteko modua izanen duzula uste duzu?**

Hor ere behetik hasi beharko dut eta zaila izanen da. Dena den, aurretik eskuz binakakoa ere hor da...



## SASKIBALOA

# Toki-Ona Bortziriak taldea Nafarroako Kirol Jolasetan

Lehenbiziko aldiz parte hartzen ari da junior mailan

A.A.

Nafarroako Kirol Jolasen junior mailan ari da aurten lehen aldiz Toki-Ona Bortziriak Berako saskibaloia taldea. Berako Jesus Alacid eta Lesakako Imanol Etxeberria entrenatzaileen erranetara hamabi gazte ari dira txapelketa honetan parte hartzen. Joan den urtean, azken hiruhilabetean kadete mailan parte hartu zuten. Aurten, junior mailan ari dira eta momentuz ez dute partidarik irabazi. Ez da harrizkoa, izan ere bertze taldeek urte aunitzeko esperientzia dute. Berako jokalariek guzientzat, berriz, lehenbiziko aldia da saskibaloian serio ari zirela. Gainera, junior kategorian bi urtez aritzen dira eta Berako taldeko gehienak lehenbiziko urtekoak dira.

Aurtengo helburua, beraz, saskibaloian ari-



AITOR AROTZENA  
**Toki-Ona Bortziriak saskibaloia taldeko jokalariek batzuk, Imanol Etxeberria eta Jesus Alacid entrenatzaileak eta Roger Bergman eta Javier Oiartzabal epaileekin batera.**

tzen ikastea eta esperientzia hartzea da Toki-Ona Bortziriak taldekoentzat, emaitzari be-

JOKALARIA	HERRIA
Gaizka CASTILLO TABERNA	BERA
Julen ESPINOSA MARTINEZ	BERA
Ruben PEÑA SANCHO	BERA
David PEREZ CONTELL	BERA
Fermin BERRUETA PEREZ-LUCAS	BERA
Ruben TORRE MINDEGIA	BERA
Ulugbek PAZILOVICH MAMADZJANOV	ERRUSIA
Xabier JUANIKOTENA COMOLLON	BERA
Egoitz TELLETXEA ETXEPARE	LESAKA
Javier PRIETO MARTINEZ	BERA
Unai ALACID ORTEGO	BERA
Jon MARTINEZ PALACIOS	BERA

Entrenatzaileak: Jesus ALACID (Bera) eta Imanol ETXEBERRIA (Lesaka)

## FLASH

### Sokatira txapelketa

Espero zen bezala, Lesakako Beti Gazte sokatira taldeak Nafarroako txapel guziaz irabazi zituen. Aurten hiru kategoria bertzerik ez dira jokatu Nafarroan, 680, 640 eta 600 kilokoak eta lesakarrek ez dute arazo handiegirik izan txapel eta tiraldi guziaz irabazteko. 560 kiloko txapelketarik ez d jokatuko. Orain, Euskal Herriko txapelketarako prestatzen hasiak dira.

### Euskal Herriko ziklo-kros txapelketa

Igande honetan jokatu da Beran, Gure Txokoa elkartearen antolakuntzapean, Euskal Herriko ziklo-kros txapelketa. Juan Carlos Garro eta Patxi Vila herriko txirrindulariak aritzekoak ziren maila nagusian. Garai batean, Espainiako eta Munduko txapelketak ere antolatu ziren Beran eta aurten Euskal Herriko ekartzeko apostua egin dute Gure Txokoakoek, 2.440 metroko zirkuitu gogorra prestatuz Matxada inguruan. Hurrengo alean emanen dugu txapelketa honen berri zabalagoa.

## HERRI KIROLA

### 205 kilokoa esku bakarrez eta 260koa biekin altxatu ditu Inaxio Perurenak

Inaxio Perurena leitzarrak bi aldiz jaso zuen 205 kiloko harri zilindrikoa esku bakar batez Arrasaten abenduaren 22an. 18 urterekin inork egin ez zuena egin zuen, beraz, lñakiren semeak. Lehenbiziko saioan 13 segundu bakarrik be-

har izan zituen harria bizkar gainean berdintzeko. Horrenbestez marka egina zuen, baina beste jasoaldi batean nahi zion Perurena II.ak. Bigarren altxaldia epaileak jo eta minutu eta 57 segundura egin zuen. «Lehen

jasoaldian, gerrira ekar-tzerakoan balantzaren bat egin dit, baina gero ongi jaso dut. Pisua ere handia da, eta horrelakoak normalak dira» zioen Inaxiok.

Urtezahar gauean 260 kilokoa altxatu zuen bi eskuekin, ETBko «Sorgiñen Laratza» saio berezian, hau ere inork ere bere adinean lortu ez zuen marka.



# AGENDA egunez egun

## MENDI IBILADIAK

### AZKAIN

**Urtarrilaren 12an** Ainhoa-Arrano Mendi ibiladia antolatu du Ibiltzaile mendi taldeak.

**Urtarrilaren 14ean** Lepoz Lepo ibiladia antolatu du Ibiltzaile mendi taldeak.

**Urtarrilaren 16an** Ibardin-Bera ibiladia antolatu du Ibiltzaile mendi taldeak.

**Urtarrilaren 19an** Bidarraiparla ibiladia antolatu du Ibiltzaile mendi taldeak.

### BZTAN

**Urtarrilaren 12an** Belaunera ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizale Taldeak.

**Urtarrilaren 19an** Beintza-Labaienera ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizale taldeak.

**Urtarrilaren 26an** Mendaurrera ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizale taldeak. Elortza eta Xabier Silbeira. Gai-jartzaile: Mikel Taberna.

## TELEBISTAKO TXOKOA



CASTILLO SUAREZ-EN ESKUTIK

# Liburu, diska eta jostailu gomendioak ortzegunero

Urte berriarekin, 2002an jorratutako ildoari eutsiko dio ttipi-ttapa telebistak. Eguberri hauetan, Olenzero edo Erregetako opariak erosterako tenorean, batek baino gehiagok Casti Suarezek emandako aholkuak kontuan hartu izanen ditu. Solasten ikasteko haurrendako ordenagailuak, jokuak, gazte jendearendako bideo eta liburuak... eta bertze hainbat produkturen berri eman zituen. Urte berrian ere bere aholkuak ematen segituko du Bortzirietako euskara teknikari eta idazleak.

Bertze saioek ere ohiko bideari ekinen diote berriz ere, Eguberrieta-ko geldialditxoaren ondotik. Akau-

tu dira programa bereziak, eta eguneroko martxari lotzeko ordua da. Aitor Arotzenak aurkeztutako Jokoa Solas kirol saioa astelehentan, Iñaki Pikabearen Eltze Beroa sukaldaritza saioa asteartetan, merkatuko prezioak eta gizarte gaietako buruzko Ainara Mindegia eta Ainhoa Arburuaren Duda-muda saioa asteazketan, Casti Suarez-en saioa ortzegunetan eta asteburuko agendaren berri ortziraletan... eta biharamoneko errepikapenak, 11:30etan, 13:00etan eta 15:30etan. Normalidadea hautsiko dutenak, ailegatzeko puntuak dauzen iñauteriak izanen dira, baina horretaz hurrengoan arituko gara.

## DISKAK



«Eguzki begi»

Laja eta Mikel

ELKAR, 2002

Iñaki Garmendia «Laja» azkoitiar trikitilari ezagunak Zumarragako trikitixako partaide den Mikel Alustizarekin batera disko berri bat grabatu du. Juan Carlos Perezen gidaritzapean, bera izan baita musika produktorea, tradizioz bustitako disko borobila prestatu dute. Triki azpizigiluan karrikaratuko den lan berri hau Elkar estudioan Jean Phocas teknikariak grabatu zuen joan berri zaigun urteko maiatzean. Urri akabailan aurkeztu zuten hamalau kantuz osatutako diska: Zatz Gurekin, Arrantzalienen bizitza, Erromerian, Zazpiak oihal batetik, Eutsi Landakanda, Aittolan, Euskal Herria, Azkoitik Zumarragara, Lajatarak, Orra, Maite bat (Kontxesiri), Sasoian malezia, San Pedro prostata eta Urti dagoen alabari kantu berriak entzungai, trikitixa klasikoaren moldetan.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Azaroaren 22tik 28ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**  
(19 kilo): 20,00 €

**Zerri gizena**  
0,88 € kilo.

**Zerramak:**  
0,41 € kilo, bizirik.

### BEHIKIA




**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,34  
**1.koa** 3,22  
**2.koa** 3,10  
**Urruxak:** Pta/kg. Kanal  
**Extra** 3,40  
**1.koa** 3,28  
**2.koa** 3,17

**Oharra:** Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.  
**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Mestizoak:** urruxak 252,43 € eta idixkoak 228,38 €

**Nabarrak:** urruxak 200,36 € eta idixkoak 176,32 €.  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,79/2,95  
Zaldi-behorrak: 1,80/1,86  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,41/7,71  
8-10 kilokoak: 6,46/6,90

# AGENDA egunez egun

## JAKIN BEHARREKOAK



# Elur, horma edo lainoarekin gidatzeko aholkuak

Zuhurtziaz gainera, badaude aholku batzuk eguraldi txarrarekin gidatzen laguntzen dutenak.

- Autoko kalefakzioa ez sobera erabili, bero soberak logalea sortzen ahal baitu.
- Goizaldean izaten da horma osatzeko aukerarik handiena.
- Zubietan, erreka ondoetan eta zoko suspetetan abiadura murriztu.
- Frenoaren pedala xuabe-xuabe zanpatu, gurpilak ez blokeatzeko. Autoak ABS baldin

badu freno ongi sakatu.

- Autoaren kontrola galtzen baduzu, ez frenatu. Azeleradoretik oina altxatu poliki-poliki eta bolantearekin kontrolatzen saiatu.
- Elurrarekin, autoa saiheska irristatzen bada, ez frenatu. Bolantea, autoaren ipurdia doan aldera mugitu poliki-poliki.
- Autoa aparkatua baldin baduzu eta elurrak estaltzen badu, ez kendu elurra autoa mugitu behar duzun arte. Hotz handiagoen kontrako aislanterik onena da elur hori.
- Erregaia maiz xamar eman.

Deposito betearekin, autoak egonkortasuna irabaziko du. Eta mugitu ezinik gelditzen bazara, denbora gehiagorako kalefakzioa izanen duzu.

- Erditik moztutako patata bat pasatu kristalaren barne eta kanpoko aldetik. Kanpotik, ura kanporatuko du eta barnetik, ez du kristala lurruntzen utziko.
- Kristala hormatu denean ur berorik ez erabili, kristala lehertzen ahal du eta. Alkohola edo antikongelantea erabili.

**CONSUMER** aldizkarietik bildua

### ERAKUSKETAK

#### ELIZONDO

**Urtarrilaren 11 arte** Eugenio Benet margolariaren lanen erakusketa Arizkunenea Kultuer Etxean. Astelehenetik larunbatera 18:30etatik 20:30etara.

#### GOIZUETA

**Martxoan hasierarako** iñauteriei buruzko erakusketa prestatu nahi du herriko kultur taldeak. Horretarako materiala (argazkiak, mozorroak...) udaletxera eraman behar dira.

### ZINEMA

#### LEITZA

**Urtarrilaren 10 eta 12an** «Intervención Divina» palestinar filmea ikusgai zinematan.  
**Urtarrilaren 17 eta 19an** «Hable con ella» filmea ikusgai zinematan.  
**Urtarrilaren 29an** «Chihiroren bidaia» filmea ikusgai zinematan.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### T12 TFNORA. DEITU

#### Urtarrilaren 6tik 12ra

Lesaka (M.J. Txoperena), Ituren, Elizondo (Lezaun), Arizkun, Urdazubi, Leitza (A. Gimeno) eta Goizueta.

## ALDIZKARIAK



### EUSKAL HERRIA

SUA  
(Bi hilabetekaria)

Natura edo mendiari buruzko liburu, gida eta kalitate handiko bertze argitalpenetara ohitua gaitu Sua argitaletxeak. Duela bizpahiru urte, «El mundo de los Pirineos» aldizkari interesgarria karrikaratu zuen eta orain bertze pausu bat eman du, «Euskal Herria» aldizkariarekin. Durangoko azokaren inguruan ikusi zuen argia bihilabetekariaren 1. zenbakiak. Mendia eta naturaz gain, kultura, bidaiak, elkarriketak, historia eta alez ale

agertuko den Euskal Herriko ibilbide handia proposatzen ditu aldizkariak, argazki, grafiko eta mapa ederrez hornitua gainera. Momentuz, gaztelarazko edizioa bakarrik argitaratu da, baina harpidedunek euskarazkoa eskatzen duten heinean, euskarazkoa ere egingen omen dute. Urtebeteko harpidetzarekin, Euskal Herriko poster panoramikoak oparitzen dute, bi urtekoarekin, euskal Pirinioko mapa erliebean. Bigarren alearen zain gaude.

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 6,30 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa iragarkia igorri faxez edo postaz.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

#### BERA edo IPARRALDEAN.

Etxe txiki bat edo apartamentu bat erosiko genuke. ☎ 946 363 271 (gauzez Maite edo Santi)

BERA. Duplexa salgai. 5 gela eta terraza. ☎ 646 266730.

ARANTZA. baserria 75.000m<sup>2</sup>koa salgai. ☎ 948 634 018 (astelenetik ortziraleta 13:00etatik 14.00etara).

LESAKA. 105m<sup>2</sup>ko duplexa salgai. Berri-berria. ☎ 616457 275

BERA. Illekueta auzoan, 80m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, komuna, egongela (20m<sup>2</sup>), sukaldea (12m<sup>2</sup>) eta 4 armairu enpotratu. 16 metroko balkoiez inguratua. Bistak hagitz onak. 40m<sup>2</sup>ko baxera salgai. Komunarekin eta altuera erdian 15m<sup>2</sup>ko almatzena.. ☎ 630 709 764 (3etatik aintzin)

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartzeko

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 646 689 070

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 686 668 514 atsaldetan

### GARAJE/LOKALAK

#### 107 Salgai

LESAKA. Denda jartzeko moduko lokala salgai. 64 m<sup>2</sup>. Albistur karrikan, Txirula lorredenda ondoan. ☎ 647 657 789

### GARAJE/LOKALAK

#### 109 Errentan emateko

BERA. Bidasoa 49, lokal bat errentan emanen genuke. ☎ 948 631022.

### ZERBITZUAK

#### 208 Bertzelakoak

#### REPARACIONES RODRI-

GO. Iturgintza, elektrizitatea, pertsiaren zerrailgintza, pintura... Elektragailuen moldaketa ttipiaki egiten dira. Seriotasuna eta azkartasuna. ☎ 600 352178 (Elizondo).

### LANA

#### 301 Eskaria

Emakume batek jatetxebatean edo zaharrak zaintzen eginen luke. ☎ 686 602 258

Emakume batek garbiketantlan eginen luke. Esperientzia duena. ☎ 948 387 018

### LANA

#### 302 Eskaintzak

Pertsona bat behar da propaganda banatzeko. ☎ 619 829 289

Pertsona bat behar da inkestak egiteko. Ordu-tegimalgua eta baldintza onak ☎ 619 829 289

Administrari laguntzailea udaletxeak Euskal Herria. Adozek informatzen du.. ☎ 943 444 182

Suhiltzaileak. Lan egin ezazu parkeak Euskal Herria. Betebeharra: Eskola Graduata. Adozek informatzen du. ☎ 943 444 182

Administrari moduan Foru Aldundian. 101 lanpostu. Adozek informatzen du. ☎ 943 444 182

Baso-Agentek Lan egin ezazu Natura Erreserbak Euskal Herria. Betebeharra. Eskola graduata. Adozek informatzen du. ☎ 943 444 182

Udalzaingoa laster deialdiak Udaletxeetan. Betebeharra: Eskola graduata. Adoz. ☎ 943 444 182

Liburutegi laguntzailea Udaletxeetan. Betebeharra: Eskola graduata. Adozek

informatzen du. ☎ 943 444 182

Gizarte Langilera. Adozek informatzen du. ☎ 943 444 182

Langilea Udaletxeak: Garbitzailea, Lorategizaina, Gi-dariak, Argiketariak... Adozek informatzen du. ☎ 943 444 182

Garraiolari profesionala izateko gaitze titulua lortu. Adozek informatzen du. ☎ 943 444 182

### MOTORRA

#### 501 Salerosketak

Escabadora Mitxigan 75 paladuna salgai. ☎ 629 640 991

Peugeot 306 1.9 TD salgai. Egoera onean. ☎ 617 144 210

Seat Ibiza SLXI 1.8 txuria, 3atekoa, musika ekipoa. Extrak: alarma, llantak... salgai. Egoera onean. ☎ 606 978 320

Peugeot 206 GTI 2000 urtekoa, grisa eta 32.000km-ta

ko salgai. Air-bag. ☎ 948 630 165 - 669 312 220.

Citroen Berlingo Combi autoa salgai, NA-AS matrikuladuna. % 948 631390.

### ANIMALIAK

#### 602 Salgai

Basurdeak ehizatzen zaurkumeak salgai. ☎ 948 393 044 - 699 622 757

15 betizu eta zezen bat salgai. ☎ 948 514 188

IGANTZI. 34 ardi 16 deretxuekin salgai. ☎ 948 637 911

### DENETARIK

#### 701 Galdu-aurkituak

3 giltza lokarri batekin lotuak galdu ditugu Vasco-nia eta Jaurena elektrogailuen tartean. ☎ 948 631 188

### DENETARIK

#### 702 Salerosketak

Sukalde ekonomikoa 60 x 60 cm, Deville markakoa salgai, egoera hagitz onean. ☎ 948 630 029

Suegurrezko sukaldea salgai, egoera hagitz onean. ☎



**TANATORIO BAZTANDARRA**  
Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,  
Urdazubi eta Zugarramurdi  
24 orduko zerbitzua tanatorioan  
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959  
☎ 900 704704

948 627 557

**Trikitixa Zero Sette castel-  
fidalgo salgai.** Kolore bel-  
tza. ☎ 948 630 418

**Bi besoko kafetera berria**  
salgai negozioa uzten dela-  
ko. Molinilloa opari.Prezio  
onean. ☎ 948 450 491

**Kotxean remolkea salgai.**  
1'60 luze x 1'20 zabal. Ar-  
killia eta toldoarekin. 750  
kilokoa. ☎ 948 451 622 -  
639 439 509

**Musika ekipoa salgai.** 4 ka-  
xa Blak sound 2015 x 360  
W, Mahaia Topaz Macro 100  
W, Monitorea Megatron MT  
102, erritmo kaxa Alexis SR  
16 eta 3 mikro, etapa...☎619  
116 959

**Harrizko aska haundi bat**  
erosiko nuke, etxe aurreko  
leku bat apaintzeko. ☎ 973  
647 286 - 948 637 153

**Frigorifiko erabilia eta ko-  
txeen erremolke erabilia**  
500 kg erosiko nuke, etxe  
aurreko leku bat apaintzeko.  
☎ 696 973 398

**Zen eskuko kalefakzio kal-  
dera** bat erosiko nuke. Ga-  
soilezkoa. ☎ 948 630 449.

**90 m2ko plaka salgai,** en-  
treplantak ixteko, pabilioi ba-  
tentzako hagitz egokia. Au-  
kera bikaina. ☎ 948 630537.

**Ordenagailua eta mode-  
masalgai,** 1998koa. 16 Me-  
gako memoria, Datac mar-  
kakoa. ☎ 636 406624.



**Bidali  
ttipi-ttapa  
herritik kanpo bizi diren  
lagun edo familiakoei**

☎ (+34) 948 631188

**MENDAUR MOTOR**  
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**  
Corsa D, Marbella, Terrano 5 ate,  
Mitsubishi 3 atekoa, Opel Frontera  
3 ate, Opel Midi

SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**Cheli Estetizista**

- Autopiloto tratamendua
- Ortopediarako tratamendua
- Akupuntura
- Dietetika
- Masajak

Taldea Plaza, 8  
28001 MADRID  
Tlf: 91 54 81 84



**BERAko UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERA

**U.U.7.2ko BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA HASIERA BATEZ ONARTZEA ETA HIRIGINTZA HITZARMENA SINATZEA: PROMOCIONES IZOTZALDEA S.L.**

2002ko urriaren 17an Udaletxeko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

- 1.PROMOCIONES IZOTZALDEA S.L.k aurkeztutako U.U.7.2.ko Borondatezko Birpartzelazio Proiektua hasiera batez onestea.
- 2.Borondatezko Birpartzelazio Proiektu honekin batera doan Hirigintza Hitzarmena sinatzea. Horretarako testua berak sinatua aurkeztu beharko da jendaurrean jarri baino lehen.
- 3.Aipatu Birpartzelazio Proiektua eta Hirigintza Hitzarmena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Irigarki Taulan eta, gutxienez, Foru Komunitatean gehien zabaltzen den egunkarietarikoa batean aldez aurretik argitaratua, 15 eguneko epean jendeaurrean jartzea.
- 4.Erabaki hau interesatuari bidaltzea.

Bera, 2002.12.30      ALKATEA,      J.J. Goia Etxeberria



**BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA**

**2003. URTEKO AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA**

**2003. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOAREN ONESPENA**

Bortzirieta Euskara Mankomunitateak 2002ko azaroaren 18an egindako bileran 2003ko aurrekontua eta exekuzio oinarriak hasiera batez onetsi zituen.

Espedienteak jendaurrean egonen dira 15 egunez, interesatuek aztertu eta egoki juzkatzen dituzten errekamazioak egin ditzaten.

Halaber, bilera berean mankomunitatearen 2003ko plantilla organikoa onetsi zuen.

Arantzan, 2002ko abenduaren 9an  
LEHENDAKARIA  
José Ramón Amoros Oskotz



**ARANTZAKO UDALA**

**KANPOSANTUA HANDITZEKO OBREN KONTRATAZIOA**


- **Kontratuaren xedea:** Arantzako Kanposantua handitzeko obrak.
- **Kontratatzeko era:** Pentsan iragarritako prozedura negoziatua.
- **Lizitazioaren aurrekontua:** 88.544,89 euro, BEZ barne.
- **Lanak egiteko epea:** bost hilabete.
- **Proposamenak aurkezteko epea:** 2003ko urtarrilaren 24ko eguerdiko 12ak arte.

Proposamenak postaz igortzen baditu lizitatuzaileak, zer egun eta ordutan egin zuen erakutsi beharko du, faxez edo telegramaz Udalera idazkia bidalita; aurkezteko epea bukatzen den egun eta orduetarako Udal honen erregistroan egon beharko da idazki hori. Baldintza hauek bete badira onartuko da proposamena, bestela ez.

- **Aurkeztu beharreko agiriak:** administrazio klausula partikularren pleguan daudenak. Agiriekin jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak beharko dute izan.

Kontratista interesatuek proiektu teknikoaren kopia, eta klausula ekonomiko-administratiboaren pleguaren kopia lortu ahalko dituzte, euren kontura, "Papeleria Rubio" kopia-dendan (Bergamin kalea, Iruña) edo Udaleko bulegoetan.

Arantza, bi milako eta biko abenduaren hogeita hiruan.  
Alkatea, Jose Ramón Amoros Oskotz



**IGANTZIKO UDALA**


**ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA**

Igantzikoko Udalak, 2002ko abenduaren 13an egindako bileran, hasiera batez onetsi zuen Igantziko Arau Subsidiarioetan 1. poligonoko 492 lurzuria zoru ez urbanizagarriantsartua dagoen zatia hiri zoru egiteko eta lurzati horretan egiten ahal den etxebizitza lekuz mugitzeko aldaketa, Juliana Antxordoki Etxeberria andreak sustatua.

Halaber, espedientea hilabete batez jendaurrean jartzea erabaki zuen, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, interesatuek aztertu eta egokiak ikusten dituzten alegazioak egin ditzaten.

Igantzin, 2002ko abenduaren 27an  
ALKATEA,  
Eduardo Migelena Legasa

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



**AROA MARTIN** beratarrek urteak bete du abenduaren 28an. Zorionak eta musu handi bat Esther eta bere familiaren partetik.




**IGOR LEKUNAK** 20 urte bete ditu abenduaren 18an. Zorionak familia eta lagunen partetik.



**MANEX ZAPIAIN** beratarrek 5 urte bete ditu abenduaren 22an. Zorionak Potolontzio! Muxu bat atxa, ama eta Onintzaren partetik.



**XUAN ETA MABI. ZORIONAKI** k.



**EILA ALTZUGARAI** 6an 15 urte eginen ditu. Zorionak familiaren partetik.




**ALAITZ AGUILAR** 8 urte bete ditu urtarrilaren 7an. Zorionak atxa, ama eta Ainhoaaren partetik.



**AMAIA ALTZUGARAI** 9 urte bete ditu urtarrilaren 19an. Zorionak atxa, ama eta Ainhoaaren partetik.



**LIDIA INDAKOETXEA** eta **ANDRES ARRATIBELEK** urtarrilaren 4 eta 17an 9 eta 2 urte beteko dituzte. Zorionak etxearen partetik eta berexiki Alvaroaren partetik.



**IRIGO DENDARRIETA** 9an 5 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik, berexiki Asieren partetik.



Lesakako **JUANITO ETA IXABELEK**, 40 urte bete dituzte ezkondu zirenetik. Zorionak zuen seme-alaba eta biloben partetik. Asko maite zaituztegu.




**IMANOL TELLETXEA** 4 eta 23an 2 urte eta urte bat beteko dituzte. Zorionak famili guztien partez.

## NORBAIT ZORIONTZEKO,

# BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,25 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:

ttipi ttapa •

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA (Nafarroa)

**PAGOLA**  
**TXISTORRAREN**  
**IZENA**

© 948 630 054  
Altzateko Plaza, 2  
BERA



## BERAko UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

### U.U.24ko BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA HASIERA BATEZ ONARTZEA ETA HIRIGINTZA HITZARMENA SINATZEA: MIGUEL M<sup>a</sup> LARRECHEA ETA BESTE BATZUK

2002ko abenduaren 19an Udaletxeko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

- 1) MIGUEL M<sup>a</sup> LARRECHEA ETA BESTE BATZUEK aurkeztutako U.U.24ko Borondatezko Birpartzelazio Proiektua hasiera batez onestea.
- 2) Borondatezko Birpartzelazio Proiektu honekin zerikusirik duen Hirigintza Hitzarmena sinatzea.
- 3) Aipatu Birpartzelazio Proiektua eta Hirigintza Hitzarmena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Irigarki Taulan eta, gutxienez, Foru Komunitatean gehien zabaltzen den egunkarietarikoa batean aldez aurretik argitaratua, 15 eguneko epean jendaurrean jartzea.
- 4) Erabaki hau interesatuei bidaltzea.

Bera, 2002.12.30 ALKATEA, J.J. Goia Etxeberria



## BERAko UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

### U.U.24ko URBANIZAZIO PROIEKTUA HASIERA BATEZ ONARTZEA: MIGUEL M<sup>a</sup> LARRECHEA ETA BESTE BATZUK

2002ko abenduaren 19an Udaletxeko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

- 1) MIGUEL M<sup>a</sup> LARRECHEA ETA BESTE BATZUEK aurkeztutako U.U.24ko Urbanizazio Proiektua, hasiera batez onartzea, honako ohar honen arabera:
  - 1.1) Udalarri egitea dagokion zatia susta-tzaileek egingo dute eta bukatzerakoan zati honen gastua obra ziurtagiri independente batean aurkeztuko diote Udalari.
  - 2) Aipatu Urbanizazio Proiektua, Foru Komunitatean gehien zabaltzen den egunkarietarikoa batean, gutxienez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Irigarki Taulan aldez aurretik argitaratua, 15 eguneko epean jendaurrean jartzea.
- 3) Erabaki hau interesatuei bidaltzea.

Bera, 2002.12.30 ALKATEA, J.J. Goia Etxeberria

# MUEBLES A METS



*Sukaldeak Egongelak Logelak Bainugelak*

**4000 m<sup>2</sup> erakusketa  
AUKERA HANDIAK**



**LARUNBAT  
ARRATSALDETAN  
EREKIA**

**Sarrera  
BERA**tik da  
*Sastrin karrika,*  
*3.2 - 3.4 Alkaiaga*  
**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537  
Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE  
WEB ORRIA

[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)

## ME K

**ERAKUSKETA  
ALDAKETA**

**BEHERAPEN  
HANDIAK**

## METS

**ESKAINITZA  
HOBERENAK**



### 2x1

**koltxoi eta  
somieretan**

- 4 TONUKO ZURAK
- 8 TAPIZATU
- 10 EGUNETAKO  
ENTREGA-EPEA

**Ostalaritza eta etxerako ekipamenduak**



# zure denda

irabazteko aunitz dauka



modernizazioa      aholkularitza aukera  
errentagarritasuna      salmentak  
publizitatea

*comercios a mano* sarearen kide izaterakoan abantaila aunitzera sarbidea izanen duzu, zure erabakitzeko ahalmena eta zure negozioaren izakera galdu gabe. Horrela errexagoa da, informa zaitez, irabaziko duzu.

informazio pertsonalizatua 948 42 63 38

laguntzaileak:



Dendak Nafarroan:

- nafarroako produktu tipikoak
- turismo informazioa
- tebakodendako produktuek
- drogeria eta lurrindenda
- jनावरिदेंदा

Aranza    Areso    Beintza-Labaien    Aurizberri    Narbarte    Ezkarotze    Erronkari

[www.comerciosamano.com](http://www.comerciosamano.com)